

Tourra, txirrindularitzaren jairik handiena, Durangaldean zehar



Bihar hasiko da Tourra, Bilbotik. Hiru etapa egingo ditu Euskal Herrian. Hirugarrena Zornotzatik hasiko da eta bete-betean zeharkatuko du Durangaldea. Munduko txirrindularirik onenek erakustaldia emanango dute. 09:00etatik aurrera, ibilbideko errepeideak zarratuta egongo dira. • **2-6**

FOKU

Zaldibarko jaiak 2023

Zaldua Kirol Elkarteak jaurtiko du txupinazoa Zaldibarren

Zaldibar • Dena prest dute Zaldibarren jaiak hasiera emateko. Aurten 50. urteurrena ospatzen duen Zaldua elkarteak jaurtiko du txupinazoa. • **14-15**



Motor gehigarria 2023

'Iurretako Ferraria' Lanbide Heziketako ikasleen lana

Motorra • Iurretako Lanbide Heziketako talde batek Euskelec txapelketan parte hartu du eta urtebeteko prozesuan auto elektriko bat eraiki dute. Prozesu luzea izan da eta hilerik hile erronkak gainditzen joan dira. • **17**



Tourreko ibilbidea Durangaldean



Murrizketak

Zein murrizketa egongo dira astelehenean Durangaldean Tourraren eraginez?

Lasterketako ibilbidean kontuan izan beharreko neurriak hartu dituzte Zornotzan, lurretan, Durangon eta Abadiñon

06:00etatik 14:00etara kale hauetan:

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Tourrak ikusmin handia piztu du Euskal Herri osoan eta baita Durangaldean ere. Bihar hasiko da lehenengo etapa, Bilbotik. Ibilbidea 185 kilometro izango ditu eta Bizkaiko hainbat herri gurutzatuko ditu (Getxo, Gorliz, Bakio, Bermeo, Gernika, Ibarrangelu, Larrabetzu, Lezama eta Sondika).

Bigarren etapak Gasteiz eta Donostia batuko ditu, 208,9 kilometroko ibilbidean.

Hirugarren etapak Durangaldea bete-betean igaroko du, uztailearen 3an, astelehena. 187,4 kilometroko ibilbidea Zornotzan hasi eta Baiolan amaituko dute txirrindulariek. Zornotzatik lurretara helduko da lasterketa, N-634 errepidetik. Adi, lurretan herrigunetik pasatuko da eta. Maspe kaletik Durangoko

Landako Etorbidera joango dira. Handik, Traña-Matienarako bidea hartuko dute. Arzubia, Zubibitarte eta Laubideta kaleetatik igarota, Hostal San Blasen ondoan N-634 errepidera bueltatuko dira. Berri-zen 'plantxak' igo eta gero Trabakutik igaroko dira. Mallabiko gainean zale oldea biltzea aurreikusten da.

Kirolaren ikuspuntutik jai handia izango den arren, adi egotea aholkatu dute lasterketaren eraginez egongo diren murrizketak direla eta. Herririk herri, hauetxek dira eskualdean iragarri dituzten neurriak.

Zornotza

Frantziako Tourreko hirugarren etapa Zornotzatik hasiko dela eta, zirkulazioa eten egingo dute

Gudari kalea, Txiki Otaegi kaleko bidegurutzetik.

Ibaizabal, aparkalekua barne. Nafarroa, aparkaleku biak barne.

Azoka.

Jauregibarria.

Belatxikieta.

Bizkargi.

Enrike Renteria, 10. zenbakiko garajeen sarreraraino.

Era berean, logistika osoa ahalbidezko asmoz, beharrezkoa izango da kale horiek ibilgailurik barik egotea. Hori dela eta, uztailearen 1eko 22:00etatik aurrera ibilgailuak kaleetatik erretiratzea eskatu die udalak zornotzarrei. Tourreko ibilbideari dagokionez, uztailearen 3ko lasterketa Gure Kirolak ingurutik hasiko da. San Migel kalera

egingo du gero, handik Karmen kalea zeharkatuko du eta N-635 errepidera batuko da gero. Azkenik, errepide honetatik N-634ra irtengo dira txirrindulariak, eta handik lurretarantz joko dute.

Lurreta

Tourrak eragin handia izango du lurretako zirkulazioan. N-634 errepideko (Zornotza-Mallabiena) eta Maspe kaleko ibilgailuen zirkulazioa guztiz moztuko dute, 09:00etatik aurrera. Garajeetara ere ezingo da sartu, ezta handik irten ere. Eta ez da autobus zerbitzurik egongo 09:00etatik 15:00etara.

Uztailearen 1etik aurrera ezin izango da ibilgailurik aparkatu Maspe kalean, ezta probako pasabidearen ondoko eremuetan ere.

Durango

Uztailearen 3an, Durangoko trafikoa goitik behera moztuko dute lasterketak igaroko dituen Fray Juan Zumarraga, Landako, Olleria

eta Faustebide kaleetan. Mozketa horiek 09:00etatik 14:30era arte (azken hau gutxi gorabehera) egongo dira indarrean.

Aparkaleku publiko bi (TADUKoa eta Landako Gunearen azpikoa) eta lasterketak igarotzen dituen kaleetako garaje partikularrak ez dira erabilgarri egongo.

Txibitena auzoa zarratu egingo dute uztailearen 3an, 9:00etatik aurrera. Ezingo da ez bertara sartu, ez bertatik irten.

Muruetatorre auzoko bideak noranzkoa aldatuko du, N-634 errepidera irten ahal izateko.

Ibilbidea daramaten inguruko kaleen zirkulazioa zarratzea aurreikusiko dute. Bilborantz edo Donostiarantz joateko autobidea erabilgarri egongo da lurretako ordainlekuan eta Atxondoko saihesbidean.

Antolatzaileek azaldu dutenez, debekatuta egongo da adierazitako ibilbide osoan autoak aparkatuta egotea. Horrek noranzko bie egingo die.

Debeku hori ekainaren 26tik uztailearen 3ra arte egongo da indarrean. Era berean, debekatuta



egongo da Gasteiz Bidean aparkatzea (biribilgunearen eta Gran Hotelaren artean), ekainaren 26tik uztailaren 3ra. Frantziako Tourreko antolakuntza eta azpiegiturako ibilgailuak egongo dira neurri horretatik salbuetsita.

TAO zerbitzua

Aparkaleku alternatiboak eskaintzeko helburuagaz, TAO zerbitzua eten egingo da ekainaren 29tik uztailaren 3ra (biak barne).

Garraio publikoan eragina

Uztailaren 3an, Madalenako autobus geltokia Tabirara (Arriluzea) lekualdatuko dute. Autobus zerbitzuak bertara eramango dituzte. Bilbo-Galdakaoko ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar ibilbidea egiten duen A-3912 linea bertan behera utziko dute Durango eta Abadiño artean. Azken hau Lemoatik joango da zuzenean autobidera.

EuskoTren zerbitzua indartuko dute. Egun horietan erabiltzea gomendatu dute agintariek.

Mediku hitzorduak Landakon

Landako anbulatorioa Tourraren ibilbide barruan dagoenez, uztailaren 3ko astelehen goizean oinez baino ezingo da joan bertara.

Abadiño

Aurreikuspenen arabera, lasterketa 13:25 aldera pasatuko da Traña-Matienatik. Lasterketa Arzubiatik sartu, Zubibitarte eta Laubideta kaleetatik igaro eta Hostal San Blaseko biribilguneetik Trabakuko mendaterantz joango da.

Lasterketaren aurretik doan publizitate karabana txirrindulariek egingo duten ibilbide beretik pasatuko da, lasterketa bera baino ordu bi lehenago.

Abadiñoako Udaletik jakinarazi dute Tourrak eragina izango duela trafikoan, eta 9:00etatik 14:00etara errepidea moztuta egongo dela. Zubitarte eta Laubideta kaleko aparkalekuak uztailaren 1eko 14:00ak arte libre egon beharoko direla ere jakinarazi dute.



Lasterketaren ordutegia:

Tourreko karabana lasterketa baino ordu bi lehenago irtengo da Zornotzatik. Taula honetako lasterketaren ordutegiak txirrindularien batez besteko 46 km/h abiaduragaz kalkulatu daude. Gutxi gorabeherako ordutegia da.

DURANGALDEA	KILOMETROAK		ORDUTEGIAK	
	HELMUGATIK	IRTEERATIK	KARABANA	46 Km/h
N-634 Amorebieta-Etxano	187.4	0	11:15	13:15
Berna Auzoa	185.7	1.7	11:17	13:17
Arriandi (Iurreta)	184.5	2.9	11:19	13:19
Mallabiena (Iurreta) (N-634-VC)	183	4.4	11:21	13:21
VC Durango (VC-BI3333)	182.1	5.3	11:23	13:22
BI-3333 Trenbide-pasagune :	181.1	6.3	11:24	13:23
Abadiño (BI-3333-N-634-BI-633)	179.9	7.5	11:26	13:25
BI-633 Trabakua	173.6	13.8	11:35	13:33

Zea Mays eta Bulego Tourrari lotuta Zornotzan antolatu duten egitarauaren barruan

Zornotzako Udalak eta herriko hainbat eragilek egun osorako ekintzak prestatu dituzte

ZORNOTZA • E.H.

Tourrak eragina izan du Zornotzan, zalantzarik barik. Dendetako erakuslehoetan zein komertzio eta tabernetan apaingarriak ipini dituzte, lasterketa laster datorren seinale. Atzera kontua martxan da astelehenean lasterketak herri guztia hartzeko. Giro horren adibidea da Eneko Atxa Zornotzako sukaldari ezagunak prestatu duen pintxo berezia: bakailao *Tourtilla*. Sare sozialetan errezeta aurkitu daiteke.

Txirrindularitzaren jai handia girotzeko, Zornotzako Udalak eta herriko hainbat eragilek egun osorako ekitaldi sorta prestatu dute uztailearen 3rako. Zea Mays eta Bulegoren kontzertuek borobilduko dute eguna.

Egitaraua

- 11:30-13:30 Umeentzako ekintzak. Zelaieta parkean
- 11:30 Triki Piu Pand trikilarriak. Gernika plazan eta Zezilia Gallartzagaitian.
- 12:30etik aurrera. Zornotza Baiona etapa ikusi ahal izateko pantaila eta txosna Sociedad Ciclista Amorebieta taldearen eskutik. Zelaieta parkean.
- 13:30 Zornotza Kantuz egitasmoa Elaia, Coral Zornotza, Andra Mari, Xuxurlariak eta Abeskimu herriko koruekin. Euskal Herria plazan, Luis Urrengoe txean eta Harrison tabernan.

- 16:00 Urban Cross Music taldeagaz Zezilia Gallartzagaitian, Sabino Aranan eta Urbano Larruzean.
- 17:00-19:00 Umeentzako ekintzak. Zelaieta parkean.
- 17:00 Zornotzako Musika Bandaren emanaldia. Zezilia Gallartzagaitian, Sabino Aranan eta Urbano Larruzean.
- 17:30 Udazken txistu taldea eta Udabarri dantza taldea. Andra Mari plazan, Gernika plazan eta San Juan kalean.
- 18:30 Zea Mays eta Bulego taldeen kontzertuak eta txosnak Urgozo txirrindulari taldearen eta Sociedad Ciclista Amorebietaren eskutik. Zubiondo plazan.



Zea Mays eta Bulego taldeak.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko ekainaren 30a
21. urtea - 942. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



2015
Bikam
2023ko ekainaren 30a
1578-7028

PEFC ziurtagiria
Produktu hau
sosteniblerako
materialak erabiltzeko
egoki da. Bizkaia
da eta Biko Kudeaketa
Ziurtagiriaren
Ziurtagiri Saria
www.pefc.es
PEFC14-38-0025

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

"Tourra Jonas Vingegaard eta Tadej Pogacarren arteko buruz buruko ikusgarria izango da"

Andoni Urbistondo kazetariak ondorengo kronika hau idatzi du Tourra hasi aurretik



ANDONI
URBISTONDO

Aiurriko kazetaria

Bi buru, bi aburu

Tourra Jonas Vingegaard eta Tadej Pogacarren arteko buruz buruko ikusgarria izango da. Edo Jonas, edo Tadej; Edo Tadej edo Jonas. Bi izen horietatik harantzago ez dago ezer: basamortu latza. Tourra bi horietako norbaitek irabazten ez badu denboraldiko lasterketa oneneko historiako ezusteko potoloenetakoa izango da. Izan ere, hain dira nagusi Vingegaard eta Pogacar, lehiaketa partikular batean lehiatzen direla. Horraino, erraza da pronostikoa egitea, baina bietatik bat aukeratu behar izanez gero, noren alde egin beharko genuke? Asmatzen duenak aberats. Biek 2023 ikusgarria osatu dute, eta elkarren aurka aritu diren proba bakarrean, Paris-Nizan, Pogacar-ek Vingegaard egurtu zuen. Orduan martxoan zen, ordea, eta orain uztailean. Pogacar, gainera, erori egin zen Liege-Bastogne-Liege proban, eta lehiaketa egunez behintzat justu samar iritsiko da Bilbora. Pogacar-en eraso dani-markarrarena baino indartsuagoa dela esan genezake, lehen kolpean garaiezina. Eraso luze mantendu behar denetan, ordea, bikingoak arriskutsua dela erakutsi du, Pogacarrek adina gatz edo gehiago duela, alegia, eta Tourreko mendate luzeetan irauteko gaitasuna erabakigarria izan daiteke.

Vingegaard-Pogacar demaz harrago zer? Esandakoa. Gauza gutxi. INEOS-en blokea dugu, Egan Bernal-ek emango duen errendimenduaren zain, Groupamako Pinot eta Gauduren jarduna, Pinoten azken Tourrean. Bardet, Vlasov, eta agertuko diren izen berriek osatzen dute kiniela.

Bihurria baino, gaiztoa

Antolatzaileek igotzaileen aldeko apustu garbia egin dute. Nahi beste mendate eta gogortasun bilatuko dute grimpeur-ek; luzitzeko terreno gutxi erlojupekoan iaioak direnek.

Euskal Herrian barrena bizikletan ibiltzen garenok gure aberri txikian tarte lau gutxi dagoelako aritzen gara demandan; ibilbiderik txikiena eginda ere ezinezkoa dela aldaparik ez igotzea. Tourreko ibilbidearen antolatzaileek ere antzeko zerbait pentsatu zuten Euskal Herria bisitan etorri, gurean hirutik bi etapa bihurri prestatu, eta Tourrari ze itxura emango zioten hausnartzen hasi zirenean. Euskal Herriko muinoak broma bat izanen direlako tropelak Tourrean gainditu beharko dituen zailtasun orografikoekin alderatuta.

Asko direlako, eta zailak. Tourra ez da bihurria. Bihurria baino, gaizto bezala defini genezake, eta nekea ondo kudeatzen asmatu beharko dute oilarrek Eliseotako Zelaietako bakera iritsi aurretik. Pirinioak daude, Erdialdeko Mendigunea, Alpeak, eta Vosgeak. Sei etapen muturreko zailtasuna dute, eta beste hainbestek arriskutsu izan daitezkeenaren itxura. Sarri mendate ez hain handiek egiten baitute epaile lana.

Euskal Herriko lehen bi etapetan tentsioa izango da tropelean. Pikeko gainak, Bilboko helmugatik gertu, eta Jaizkibelet urduritasuna ekarriko dute oilarren eskortara. Baionako bukaeran ez hainbeste. Gauzak normal, esprintean erabakiko da Lapurdiko hiriburuko saioa. Laugarrena ere esprintean bukatuko da, eta konturatzerako, Tourra Pirinioetan sartuko da bete-betean: Paue-Laruntze etapa, Biarnoko bihotzean. Euskal Herrira bigarren sartze bat eginez, gainera, Biarnoko Landatik Zuberoako Montori herrian barrena.

30 kilometro pasatxo handik berriro Biarnora bueltatu arte, Soudet mendate igaro baino hiru kilometro lehenago. Tarte horretan Montori, Atharratze, Liginaga-Astüe, Ligi-Atherei eta Santa Grazi herriak pasako ditu Grande Boucle-ak. Etapak mamia dauka, eta kontuz, mendiko lehena baita. Soudet Santazitik oso tentea eta luzea da, eta trabestu egin dakioko norbaiti. Aretara jaitsi, hirugarren mailako Iche-re pikoa igo eta Pirinioetako malda ezagunenetakoa gainditu beharko dute: Marie-Blanque, bere alde gogorrenetik, Escot-etik. Azken lau kilometroak %10etik gorako desnibela, eta 10 kilometroko jaitsiera azkarraren ostean, beste hamar Laruntzeraino. Quebrantahuesos martxa zikloturista egin dutenek ondo ezagutzen dute bidea.

Taktikoki zer egin, zer ez, buruko minak eragingo dizkie etapa horrek kirol zuzendariei, baina ez pentsa Pirinioetako bigarrena samurragoa denik. Mendatean bukatzen delako, Laruntzeko ez bezala: Tarbes-Cauterets Cambasque. Izen horrekin, gure arbaso euskaldunak paraje horietan ibilitakoak direla

ziur! Aspin, Tourmalet eta Cambasque mendateak eguneko menuan: errepide ezaguna noizbait Lac De Gaube dotorerara joan bazarete, Vignemale ikusgarriaren magalean. Tarte handia dago Tourmalet gaina eta azken igoeraren artean, baina Cauterets-etik gora Cambasque bera oso gaiztoa da: 3,5 kilometro %10etik gorako desnibelarekin.

7. eta 8. etapak lauak dira, Bordelen eta Limoges-en bukatuko direnak. Limoges hiria Erdialdeko Mendiguneko sarbide izan ohi da normalean, eta aurten ere halatsu izango da. Lau etapa osatuko ditu han Tourrak, eta orografia bihurriari paraje haietan egin ohi duen salda gehitu behar zaio. Ez alferrik. Frantziako zartagina esaten diote Clermont-Ferrand hiri inguruari. Tentuz kudeatu beharreko etapak izaten dira, eta mendi ezagun edo zail-zailik eduki gabe ere Frantzia erdialdean.

Puy de Dome 35 urte geroago

Bigarren igandean Puy de Dome mitikoan bukatuko da etapa. 35 urte pasa dira etapa bat han bukatu zenetik, eta egun hara bertaratzea mugatua dago erabat. Errepidea itxita, eta tren kremlera antzeko bat, aukera bakarra. Edo oinez. Mendate bakarreko etapa dela, pena, baina Puy de Dome gaiztoa da oso. 13 kilometro da luze, eta %7,7ko batez besteko desnibela dauka. Azken lauak horma handia: %12a. Clermont-en atsedena hartu eta astearteko etapa ere bihurria,

Igotzaileen aldeko apustu garbia egin dute. Nahi beste mendate eta gogortasun bilatuko dute

da, mila aldapa Vulcania eta Issoire artean. Antzekoa da osteguneko etapa ere: bost mendateko etapa, eta atsedetik ez, apenas, ibilbide guztian. Mendateak, hori bai, laburrak dira, eta nahiko etzanak.

Jura mendikatera etapa bakarrean egingo dute jauzi txirrindulariek. Eskualde hartan jokatu den etapa bakarra Grand Colombier ezagunean bukatuko da, 17 kilometroko aldapatzarra, %7,1eko batez besteko maldarekin. Bigarren asteburua Alpeetan egingo dute bete-betean, bi etapa gogorrekin. Klasikoa, lehena, Morzine-Avoriaz eski estazioan bukatuko dena Joux-Plane ezaguna igo ostean, larunbatez. Bertan txirrindularitzako historiako pasadizo asko osatu dira, eta aurten ere erne, Joux-Plane xelebreak ohore egin baitiezaiok bere legendari. Etapa berean lehen mailako beste hiru mendate igoko dira, aurrez: Cou, Feu eta Ramaz. Igandekoa ere dardarka hasteko modukoa da, Mont-Blanc ederraren

magalean. Lehen mailako Montmin, Croix Fry eta helmugako Saint-Gervais Mont Blanc bidean, eta azken horren atarian bigarren mailako koska zitara, Domancyn gora: Col des Amerands, 2.700 metro %11ko maldarekin.

Alpeak, erabakigarriak

Bigarren atsedean eguna etorriko da gero, Saint-Gervais-en bertan. Merezitakoa, eta beharrezkoa, hirugarren asteko astearte eta asteazkeneko etapak erabakigarriak izan bide baitira. Asteartean Tour osoko erlojupeko bakarra jokatu da, eta 22,4 kilometroko bakarrak. Passy eta Combloux arteko tarte, gainera, gorabeheratsua da, azken sei kilometroak gorantz baitira. Horietatik bi eta erdi %9,4ko maldarekin. Asteazkeneko etapa Tourreko gogorrenetakoa izanen da: Saint-Gervais Mont-Blanc, Courchevel. 160 kilometrotan 70 maldan gora, eta desnibel metatua ia 5.000 metrokoa. Saisies, Cormet de Roselend bukatzina, Longefoy eta Col de la Loze mamutzarra 2.304 metrora.

28 kilometroko igoera bukatzina da Loze, eramangarria Meribel eski estazioraino. Kilometro pare bateko arnasa, eta azken 10 kilometroak exigenteak. Lehen erdia %7ko batez bestekoa, eta azken bost mila metroak %10etik gorako malkarra. Tarteka, gainera, %24ko hormatzarrik. Ez da goian bukatuko, Miguel Angel Lopezek irabazi zuenean bezala, Courchevel-en baizik. Sei kilometroko jaitsiera bihurria, eta azken 700 metroak eski estazio ezagun horretako helipuertoraino, %11ko batez besteko maldarekin. Diferentzia handiak egingo dira etapa honetan, gogorrena delako eta ziklisten hanka zuztarrak mugamugan egongo direlako dagoeneko.

Bi etapa erraz etorriko dira ondoren, eta Parisera iritsi aurretik, azken bala, Vosgeak eskualdean. Arriskatzeko moduko profila dauka Belfort eta Le Markstein Felling artekoak. Etapa urduria izateko osagai guztiak ditu: laburra, 133 kilometro baino ez, sei mendate bidean, 3.500 metroko desnibel metatua eta hauspoari buelta emateko aukerarik ez, apenas, txakalaldiren bat harripatuz gero. Bigarren mailako hiru mendate, menuko lehen plater, Petit Ballon d'Alsace bigarren plater, 9,3 kilometro eta 8,1eko batez besteko pendiza. Postrea, Platzerwasel gaina, 7 kilometro %8,4ra, eta noski, tranpatxoarekin, Le Markstein-eraino 8 kilometro luze geratuko baitira oraindik, gorabeheratsuak denak.

Uztailaren 23an garaipena. Eliseotako Zelaiak. Paris. Loria. Ohore bertaratu diren denek.

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO
Eneritz Iturriaga Durangaldeak eman duen txirrindularirik onenetarikoa da. Bere sasoiaren hainbat bider parte hartu zuen Frantziako Tourrean, eta euretari baten hirugarren amaitu zuen. Oraingoan, Radio Euskadira eta ETBrako komentaria lanak egingo ditu.

Tourreko Euskal Herriko etapak modu berezian biziko dituzu?

Bai. Ez nuen pentsatuko une hauek biziko genituenik. Imajinatzen dut sukaldeko lan handia dagoela honen guztiaren atzetik. Aste bian kanpotik ibili naiz, lanean, eta hona bueltan denak Tourrari buruz berbetan dabilta. Ikusmina sumatzen dut jendearengan. Gure inguruan inpaktu handia eragingo duela uste dut.

Niri batez ere burura etorri zaidana hau da: "Zenbat Tour korritu genituen eta inor ez zen enteratu ere egin"

Domekan Zornotzan izango zara?

Eguenetik astelehenera Radio Euskadirentzat eta ETBrentzat komentaria lanak egingo ditut; beraz, Euskal Herriko etapa guztietan egongo gara.

“Aste bian kanpotik ibili naiz eta bueltan denak Tourrari buruz berbetan dabilta”

Eneritz Iturriagak hainbat bider parte hartu du Frantziako Tourrean. Egunotan irrati eta telebistarako komentaria ibiliko da

Hamarkada bat joan da txirrindulari izateari utzi zenionetik. Orduko kontuei buruz gehiago gogoratzen zara egunotan, Tourra denen ahotan dabilenean?

Batez ere, haxe da burura etorri zaidana: "Zenbat Tour korritu genituen guk eta inor ere ez zen enteratu". Esaterako, 2001ean Bilbon hasi zen emakumeen Tourra. Orduan bizitakoak ez dauka zerikusirik gaur egun bizitzen ari garengaz. Bestelakoan, nire sasoiako oroitzapenak ere etortzen zaizkit burura, jakina. Beste eskala batean bizi arren, azken finean berdina da. Hautacam, Tourmalet... horiek denak igotakoa naiz. Baina ez dut horren falta igartzen, ze badakit zenbat sufritu nuen. Prestakuntza ikaragarria eskatzen du. Bizikleta utzi nuen momentutik bertatik, ez dut berriro bizikleta hartzeko gogo hori izan. Oso pozik nago txirrindulari nintzela egindako lanagaz, eta, utzi nuenean, ziklo baten amaiera eta berri baten hasiera izan zen. Aurrera begira bizi

naiz, aurretik ditudan proiektuetan eta erronketan dut burua.

Azken urteetan lasterketak galtzen joan gara: Udaberriko klasikoa Zornotzan, Urkiolako Igoera... Arlo hori berpizteko balio dezake Tourraren bultzadak?

Gakoa borondate politikoan dago. Aldundiaren eta Jaurlaritzaren aldetik apustu sendoa eskatzen du, lasterketa antolatzeak diru asko eskatzen duelako. Eta jende askoren lana.

Zenbat bider parte hartu zenuen Tourrean?

Sei bider, guztira. Grande Boucle deitzen zenean, hiru bider, 2001etik 2003ra. Hamabost eguneko itzulia zen orduan. Ondoren, hori desagertu eta La Route de France sortu zuten, eta hor beste hirutan aritu nintzen, 2007tik 2009ra.

Grande Boucle bederatzigarren amaitutakoa zara eta La Route de France hirugarren. Horiek izan ziren zure Tourrik onenak?

Emaizta aldetik bai, baina sasoi puntuaren aldetik... Azken pos-



Eneritz Iturriaga Mazaga
Eneicat taldeko zuzendaria
ABADIÑO | 1980

tuak ibilbidearen araberakoak dira. Tourmalet eta horrelako mendateak zeudenean denbora dezente galtzen nuen. Baina goi-mendate gutxi eta erdi mailako asko bazeuden, orduan ondo

ibiltzen nintzen. Trebea nintzen, beti ihes eginda nentzen. Hirugarren amaitu nuen urtean, ihesaldi batean hainbat minutu hartu nuen. Gero, aldeari eutsi eta hirugarren amaitu nuen.

“Tourraren moduko lasterketa bat Euskal Herrira bueltatzea pozgarria da”

Etxebarriak 7 Tourretan parte hartu du eta 1999koan etapa garaipen bi eskuratu zituen. Egun Eulen taldeko zuzendaria da



David Etxebarria Alkorta
Eulen taldeko zuzendaria
ABADIÑO | 1973

TXIRRINDULARITZA • M. ZUAZUBISKAR
Tourraren zurrumbilao murgilduta dabil David Etxebarria txirrindulari ohia. Atzo Tourraren aurkezpenaren egon zen eta bihurtik aurrera Euskal Herriko

lasterketak zuzenean jarraitzeko asmoa du zazpi aldiz Tourreko partaide izan den eta munduko lasterketarik garrantzitsuenetarikoa etapa garaipen bi dituen abadiñarrak.

Tourra Euskal Herriatik hasiko da, bihar. Zelan bizi dituzu lasterketa hasi orduko ordu hauek?

Ilusio bereziagaz bizi ditut, baita konpromiso handiagaz ere. Eusko Jaurlaritzatik hainbat kontutarako deitu didate, baita irrati eta egunkarietatik ere, eta, egia esan, hau guzti hau polita izaten ari da. Gainera, jakinda orain 16 urte utzi nuela bizikleta polita da oraindino nitaz gogoratzen direla ikustea.

Zuretzat zer suposatzen du Tourra Euskal Herrian hastea?

Niretzat pozgarria da Tourraren moduko lasterketa bat berriro ere Euskal Herrira bueltatzea eta hori bizi ahal izatea. Gainera, oraingoan bertatik irtengo da eta hiru etapaz gozatzeko aukera izango dugu. Lehenengo etapa Bizkaia aldetik ibiliko da, gero Arabara doa eta astelehenean Zornotzatik Gipuzkoa igaro eta Baionarantz. Horrez gainera, nire kasuan lez, esango nuke

txirrindularitza maite duen orori ilusio berezia egingo diola jakiteak euskal txirrindulariak lehenengo etapa irabazteko borrokan ibili daitezkeela. Peio Bilbao etaparen borroka horretan ikusten dut eta polita litzateke Bilbon bera horiz jantzita ikustea.

Zelan jarraituko dituzu Euskal Herriko hiru etapa hauek?

Orain Arteagan bizi naiz eta lehenengo etapa etxe ondotik igarotzen da. Orduan, Laga Laida ingurura joango naiz bizikletan, eta bertatik igarotzen ikusiko ditut txirrindulariak. Horren ondoren, etapa amaiera etxean ikusiko dut seguruenik, telebistan. Eta Zornotzako etapa ikusteko, irteerara joango gara eta bertan ikusiko dugu. Lasterketa honek mugitzen duena izugarria da, zirku bat da, eta, beraz, egingo dugu zerbait.

Tourra Euskal Herrian, munduko zalerik onenen artean. Hori izugarria izan behar da.

Ez daukat dudarik berezia izango dena. Nik ez dut horrelakorik bizi izan, baina badakit izugarria izango dena. Ikustea besterik ez dago Pirinioak euskal zalez zelan betetzen diren. Beraz, hemengoa itzela izango da. Euskal Herriko zaleak munduko onenetarikoa dira eta hori errepidean igartzen da eta igarriko da.

Ikustea besterik ez dago Pirinioak euskal zalez zelan betetzen diren. Beraz, hemengoa itzela izango da

Azken urteetan hainbat izan dira desagerturiko lasterketak. Uste duzu honek bultzada bat emango diola txirrindularitzari?

Alde batetik, gaztetxoak txirrindularitzara zaletu daitezkeela uste dut. Azken batean, bertatik bertara ikusiko dituzte eta munduko txirrindularirik onenak. Baina antolakuntza aldetik bultzada hori sentitzea oso gaxt ikusten dut. Azkenean, gobernuak diru asko inbertitu du lasterketa honetarako, Euskal Herria munduan ezagutarazteko.

UDA KO 9. ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak
irailaren 15era arte

Informazio gehiago
www.anboto.org webgunean

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Smartbox-a.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik.
- Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Alkatearen soldata igotzeko proposamenak eztabaida piztu du Durangoko Udalean

EH Bilduk dio alkatearen soldata %66 igoko dela. Gobernu taldeak azpimarratu du EUDELen irizpideak erabili dituela

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Alkatearen eta liberatuen soldatek eztabaida piztu dute Durangon. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak desadostasuna agertu dute "alkatearen soldata %66 igoko delako", gobernu taldeak egindako proposamenaren arabera. "Alkate berriak 77.929 euro kobratuko ditu urtean, aurreko alkatea zen Ima Garrastatxuk

baino 30.929 euro gehiago", esan du koalizio subiranistak. Herriaren Eskubideak, bere partetik, "alkateordeen soldatak %71 igoko direla" gaineratu du.

Durangoko gobernu taldeak kritika horiei erantzun die, eta adierazi du Mireia Elkoroiribere soldata EUDEL erakundeak gomendaturiko irizpideetan oinarrituko dutela; zehatz esanda,

10.000tik 20.000 biztanlera arteko udalerrientzat hartzen den irizpidean. Horren arabera, Elkoroiribek 77.929 euroko soldata gordina izango du urtero. EUDELe Durangoren moduko herrientzat markaturikoa (85.831 euro) baino baxuagoa, beraz. Era berean, gobernu taldeak azpimarratu dutenez, "alkateak Eusko Jaurlaritzako zuzendari izan zeneko soldata berari eutsiko dio".

Koalizio subiranistak egindako beste kritika bat zinegotzien liberazioetan oinarrituta dago. EH Bilduk dioenez, "gastu publikoa 300.000 euroan handituko da". Gobernu taldeak, baina, gezurtatu egin du hori. Liberazioetarako diru publikoa "27.897 euro baino ez da handituko", euren esanetan. Gobernu taldeak zazpi ordezkari ipini gura ditu soldatapean lanean. Gobernu taldeko lau eta oposizio alderdi bakoitzeko bat.



Durangoko udalbatza osatzen duten kideak kargua hartzeko egunean.

Durangoko EAJk eta PSE-EEK "aniztasunean oinarrituriko gobernu ituna" sinatu dute

Gutxiengoa izanda gobernatuko dutela eta, "ahalik eta adostasunik zabalena" gobernatu gura dute



Mireia Elkoroiribe eta Jessica Ruiz.

ZORNOTZA • E.H.

Durangoko gobernu talde berria martxan da jada. Martitzenean legealdi berriari begirako gobernu akordioa sinatu zuten EAJk eta PSE-EEK. Alderdi biek gutxiengoa izanda gobernatuko dute datozen lau urteetan, baina Mireia Elkoroiribe alkateak aurreratu du "ahalik eta adostasunik zabalena" lortzen ahaleginduko direla oposizio gainerako alderdiekin. "Ateak zabalik" dituztela adierazi du. Alde horretatik, "aniztasuna, lankidetzeta eta adostasuna" oinarri dituen gobernu akordioa sinatu dute.

Durangoko jeltzaleek eta sozialistek hainbat puntutan batu dituzte aurrerantzean landu gura dituzten proiektuak. Azpimarragarrienen artean, honako hauek adostu dituzte: Eguzkitzako industrialdea gartztea, Durangaldeko Ekogarapen Gunearen eraikuntza erraztea, Osasun Sailagaz lankidetzan aritzea Lehen Arretan eta ambulanziaz medikalizatuan arreta ipinita, Trenbideko lurrak berreskuratzea, etxebizitza hutsak merkaturatzea eta Gaitasun Handiko Osasun Zentroa erraztea.

Garaiko nagusiak Baionara joango dira zapatu honetan

Bisita gidatu batez hiriko kale bazterrak ezagutuko dituzte. Autobusak 8:00etan irtengo du, Garaiko plazatik

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko nagusien elkarteak irteera antolatu du uztailearen 1erako, Baiona ezagutzeko. Bisita gidatuagaz hasiko dute eguna, 11:30ean, eta bertako Alde Zaharra ezagutuko dute. Bisitaren ondoren, Rotisserie du Roy Leon

izeneko jatetxean bazkalduko dute. Arratsalde partean, denbora libre izango dute hiriko kale bazterretan norbere kontura ibiltzeko. Garaiko nagusien elkarteak antolatu du txangoa, udalaren eta Aldundiaren laguntzagaz.



Baiona.

Uztailaren 7an Alexandru Ionita gaztearen aldeko jaiia egingo dute Zornotzan

Baturiko dirua gaztearen errehabilitaziorako erabiliko dute



2021eko uztailean, zornotzarrek kalera irten zuten Ionitaren kontrako eraso salatzera.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zubiondo plaza elkartasunez jantziko da uztailearen 7an. Herri-talde batek Alexandru Ionita gaztearen aldeko jai solidarioa antolatu du. "Alexandru errehabilitazio terapia jasotzen hasi da Bartzelonako klinika batean. Hobera egiten dabil. Eskuak mugitzen hasi da, jaten hasi da", azaldu du Alexandra Buricek, familiaren bozeramaileak. Terapiak 4.500 bat euroko kostua dute hilero. Hori dela eta, errehabilitazioak dakartzan gastuei aurre egiteko erabiliko dute baturiko dirua. Jaiari 14:00etan ekingo diote. Zornotzako hainbat tabernariren laguntzagaz paella eta hot dog ogitartekoak ipiniko dituzte salgai. Taloak eta ogitartekoak ere izango dituzte. Ondoren, barbakoa, magia saioa, xaboi ponpen ikuskizuna, zumba eta musika izango dituzte. Gazte talde batek Alexandru Ionita jipoitu zuen 2021eko uztailearen 24tik 25erako gauean, Jauregibarria parkean.

Bakailao eta tortilla txapelketak, herri afaria eta Laiotz taldearen erromeria, gaur, Apatan

Eguaztenetik jai giroan murgilduta daude atxondarrak. Gustu eta adin guztietarako egitaraua antolatu dute

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Axpeko San Joan jaiak amaituta, atxondarrek Apatako jaiak eman diete hasiera. Eguaztenean txopoa jaso eta Gaztetxeko belaunaldi berriak pregoia irakurrita eman zieten hasiera herriko jaiak. Asteburu honetan ere egitarau zabala egongo da Atxondon, adin eta gustu guztietarako. Gaur, esaterako, bakailao eta patata tortilla txapelketak egongo dira. Laiotz taldearen erromeriagaz emango diote amaiera egunari.

Bihar, egun osoko egitaraua izango dute. Eguerdian, paella eta igel txapelketak izango dira, besteak beste. Eta gauean, Añube eta Iskanbila taldeen kontzertuak. 02:00etan, DJak egongo dira Gaztetxean.

Domekan emango diete amaiera jaiak. Goizean, 11:00etatik 14:00ak arte artisau eta nekazari azoka egongo da. Eta iluntzean txopoa bota eta txokolata da egingo dute.



Eguaztenean eman zieten hasiera Apatako jaiak.

Berdintasuneko ekimenetan parte hartu duten emakumeek ikasturte amaiera ospatu dute

Emakumeen arteko sareak ehuntzea izan da helburua



Joan zen egunean egindako jaiko argazkia.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Jabetze eskoletan eta Elorrioko Udalak berdintasuna eta emakumeentzako bizitza duina sustatzeko martxan ipinitako beste ekimen batzuetan parte hartu duten emakumeek ikasturte amaierako jaiak ospatu zuten joan zen astean. Udaletik jakinarazi dutenez, 80 bat emakume elkartu ziren, adin eta jatorri askotarikoak. Baita herriko mugimendu feministako kideak, elkarte eta kolektibo desberdinetako partaideak eta udaleko ordezkariak ere.

Egitarau zabala Elorrion, Berrio-Otxoa egunaren harira

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrio-Otxoa egunaren bueltan, Elorrion egitaraua antolatu dute. Uztailaren 1ean, Markeliñe konpainiaren antzezlanak izango da plazan, 22:30ean. Domekan, goiz osoan zehar azoka ekologikoa egongo da Elorriko Ekologi Taldearen eskutik. Eta arratsaldean, 19:00etan, Elorriko Trikitilari Gazteen Txapelketa jokatu da, plazan.

Amaitzeko, martitzenean Berrio-Otxoa eguna ospatuko dute. 12:00etan meza nagusia egongo da, eta 13:00etan hamai-

Uztailaren 2an, domeka, azoka ekologikoa eta Elorriko Trikitilari Gazteen Txapelketa egongo dira

ketakoa, Berrio-Otxoa kalean. Abesbatzaren kantaldiagaz emango diote amaiera egunari. 20:00etan hasiko da Santa Anako kaperan.

Gauargi taldearen erromeria, bihar, Gazteluko jaietan

Gaurtik uztailaren 7ra bitartean, abadiñarrek Gazteluko San Martin jaiak ospatuko dituzte

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gaur iluntzean Donien Atxa jasota Gazteluko San Martin jaiak eman diete hasiera. Biharko, egun osoko jaiak antolatu dute bertan. 10:15ean yoga saioa izango dute, Patagonia Hatha Yogaren eskutik, eta 11:00etan Abadiño emakume artisau eta sortzaileen azoka eta umeentzako tailerrak egongo dira. 12:00etan Abadiño sokatira

taldearen erakustaldia egongo da eta 14:00etan auzo bazkaria. 20:00etan tortilla txapelketan batuko dira gazteluarrak, eta Gauargi taldearen erromeriagaz amaituko dute eguna

Uztailaren 4an meza eta meza osteko luntxa egongo dira. Eta uztailaren 7an, 20:00etan, Donien Atxa bota eta horren ondoren berakatz zopa jango dute.

Zapatuan 'Rocío' jaiak ospatuko dute Astolan, De Norte a Sur taldeak antolatuta

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uztailaren 1ean 'Rocío' jaiak ospatuko dute Abadiño, Astolan. De Norte a Sur taldeak egun osoko egitaraua antolatu du zapatarako. Txupinazoagaz emango diote hasiera egunari, 12:15ean, eta, horren ondoren, pregoia, rocio meza, ohorezko rebujittoa, 'Azahar' kontzertua, herri bazkaria eta De Norte a Sur dantza taldearen saioa egongo dira, besteak beste. 20:00etan disko-festa egongo da, Onda Futuraren eskutik.



'El Rocío' jaiko arxiboko irudia.

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

EKAINEN ZOKKETAK



BBK Karpin Faunarako bi sarrera bikoitz.



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Mendexa Abentura Park:

Liher Airtzaguen Brabo, Uxune Martinez Mazaga eta Mikel Gerediaga Bustinza

Jatordua Uxarten:

Maite Muxika Ulazia

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaituzte Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Zaldibarko zabortegeiak "egonkortasuna galdu" duela eta, neurriak hartzeko eskatu diote Jaurlaritzari

Zaldibarren manifestaziora deitu dute gaurko, 19:00etan

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Zaldibar Argitu plataformak, Ekologistan Martxanek eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak elkarretaratzea egin zuten astelehenean Bilbon, Zaldibarko zabortegeia "jausten ari dela" salatzeko. Atzo ere elkarretaratzea egin zuten, Eusko Legebiltzarraren parean, eta Zaldibarren gaur, hilak 30, egingo den manifestaziora joateko deitu dute. 19:00etan izango da. Eneko Iraeta Zaldibar Argituko

kideak azaldukoaren arabera, egungo egoera ez da 2020ko otsailaren 6koa baino hobea: "Eusko Jaurlaritzak berak epaitegira bidali du txostena. Egonkortasunari begiratuz gero, arriskua handia da, mugitzen dabil, pitzadurak daude; arriskua balizko erorketa batetik haratago doa, eta gasen, usainen eta suteen isurketei dagokienez ere arrisku handia dago. Oso kezkatuta gaude". Eusko Jaurlaritzak Geologia y Geotecnia Larrea S.L.

enpresari eskaturiko txosten geologikoaren arabera, hondakinen masa ez da egonkorra. "Oso garrantzitsua da bizilagunei egungo arrisku egoeraren berri ematea", azaldu dute, eta mobilizatzeko deia egin dute, "Eusko Jaurlaritzari premiazko ekintzak eskatzeko, beste hondamendi bat saihesteko".

Zaldibarko Udalak ere "segurtasuna bermatzeko premiazko neurriak hartzeko" eskatu dio Jaurlaritzari. "Benetan kezkatuta gaude zabortegeiaren eta inguruan bizi diren pertsonen egungo egoeragaz", azaldu du ohar baten bitartez Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkatea. Horrez gainera, aldi baterako estalki artifizial bat egitea, zabortegeia behin betiko zigilatzea, hondakinaren egonkortasunari buruzko azterketa egitea eta ohiko jarraipen kontrolak egitea eskatu du udalak.



Zaldibar Argituk astelehenean Bilbon egindako elkarretaratzea.

Kontzertuak eta paella txapelketa Berrizko jaietan

Eguaztenean hasi zituzten jaiak, Berriz Futbol Taldearen txupinazoagaz. Asteburua ekitaldiz beterik dator

BERRIZ • J.G.

Udako jaien distiragaz heldu dira Berrizkoak ere. Eguenean hasitako egitarauak jarraipena izango du asteburuan. Gaur gauean, Rukula eta Chuleria, joder! musika taldeek kontzertua emango dute. Zapatuan jaietako

ekitaldirik jendetsuenetarikoa izango da: paella txapelketa. Eta arratsalderako kuadrillen mozerro jaitsiera antolatu dute. Zapatu gauean kontzertua egongo da, Feline eta Flash musika taldeekin. Ondoren, DJ Pary & Tizak girotuko du gaua.



Donien Atxa jasota hasi zituzten jaiak, eguaztenean.

Iurretako Amataz auzoko San Martin jaiak ospatuko dituzte asteburuan

IURRETA • J.G.

Bihar Amatazako jaiak hasiko dituzte Donien Atxa jasota. Ondoren, dantzariak azken entsegua egingo dute. Tortilla txapelketagaz amaituko dute eguna. Domekan trikitilariak kalejiran irtengo dira, 10:00etan. 12:30ean auzoko dantzariak saioa egingo dute, eta gero bazkari herrikoia egongo da. Karta-joko lehiaketa eta umeen jolasak ere egingo dituzte. Uztailaren 4an, martitzenean, trikitilariak kalejiran irtengo dira, eta 12:00etan meza nagusia izango da. Aurten go edizioan ez dute trikitixa jaialdirik egingo "azpiegitura handiegia delako auzo txiki barentzat", antolatzaileek azaldu dutenez.

Ostalaritza munduan hamar urteko esperientzia duen izurtzar batek hartuko du Herriko Tabernaren ardura

Udane Ramírez Azkaratek irabazi du udalaren lehiaketa; iraileko lehen astean hasiko diren Izurtzako jaien aurretik zabaltzeko asmoa dute

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Izurtzako Udalak Herriko Tabernaren kudeaketa eta eraikin berean dagoen etxebizitzaren alokairua lehiaketa publikora atera zituen maiatzean. Lehiaketa indarrean egon zen epealdian hiru proposamen aurkeztu zituzten. Proposamenak aztertu eta baloratu ostean, esleipena Udane Ramírez Azkarate izurtzarrari egitea erabaki dute.

Ramírez izurtzarra da, 33 urte ditu eta sei urte daramatza Durangon bizitzen. Magisteritza ikasketak ditu eginda eta esperientzia zabala du ostalaritza sektore honetan lanean. Denbora honetan, Otxandioko Korostondo jatetxean, Berrizko Pedro Juan jatetxean eta Durangoko eta Iurretako beste ostalaritza negozio batzuetan aritu da.

"Oraindino sinestu ezinda nago. Gerente moduan lan egindakoa naiz, baina sekula ez dut izan nirea zen negozioirik. Pozik,



Izurtzako Herriko taberna.

emozionatuta eta ilusio handiz nago", adierazi du Ramirezek. "Neba eta ama enteratu ziren tabernaren lehiaketa martxan zela. Familiak aurkeztera animatu ninduen eta euren babesa izan dut. Egoera baloratu eta

azkenean aurkeztera animatu nintzen", gogoratu du.

Irekiera

Iraileko lehenengo astean Izurtzako jaiak hasiko dira eta ordu-rako zabaldu gura dute taberna.

Hain zuzen ere, abuztuko azken astean zabaltzea da plana, jaietan herritarren zerbitzura egon dadin. Epe horri begira, goitik behera garbituko dute taberna. Ondoren, zabaldu ostean eta aurrera begira, udalak azpiegitura

batzuetan hobekuntzak egingo ditu, udal arduradunek jakinarazi dutenez.

Urdaiazpikoa, mantendu

Izurtzako Herriko Taberna eza-guna izan da eskaintzen zituen urdaiazpiko, solomo, gazta eta beste errazio batzuegaitik. "Horri guzti horri eutsi egingo diogu. Durangon ere eza-guna da horregaitik, oso produktu ona eskaintzen zuten beti eta horregaz jarraitzeko asmoa dugu", baieztatu du Ramirezek. Bestelakoan, printzipioz ez du menurik emateko asmorik, baina asteburuetan ogitartekoak ematea darabil buruan. "Martxan gabiltzala ikusiko dugu zelan gabiltzan eta zer eskaini dezakegun", argitu du.

Laster, berriro Izurtzara bizitzera etorriko da Azkarate, tabernako eraikin berean dagoen etxebizitzara. "Izurtzarra naiz, hemen hazitakoa, eta, egia esanda, herrira bueltatzeko gogoz nago", adierazi du.

Urmuga ekimeneko kontzertu bat Otxandion izango da, uztailearen 14an

OTXANDIO • J.D.

Euskal Herria Mendebaldetik Ekialdera zeharkatzen duen Urmuga mendi ibilaldi musikatu, 20 musika emanaldi izango dira aurten, eta eurretari bat Otxandion da. Uztailearen 14an, 18:30ean, askotariko musikariak batuko dira Otxandio-ko Presazelai pagadian: Carme Canela, Baleen Lobak, Mikel Urdangarin, Bixente Martínez, Leire Letu, Kristina Aranzabe, Leturia, Iñaki Diéguez, Otxandioko Txistulariak eta gehiago. Kontzertuen ondoren, Eusko Label produktuek eskainitako jan-edana dastatzeko aukera egongo da. Eurria bada, eskolara lekualdatuko dute ekimena. Urmuga egitasmoko bost kontzertutan sarrerak erosi behar dira eta Otxandiokoa da eurretari bat. Nagusientzako sarrera 20 euro da eta 16 urtetik beherakoentzako 5 euro. Sarrerak www.urmuga.eus webgunean eskuratu daitezke. 5 urtetik beherakoek ez dute ordaindu behar.

Mañarian plater-tiro lehiaketa egingo dute domeka honetan

Urkiolara bidean dagoen Garaitorre jatetxe inguruan izango da

MAÑARIA • J.D.


Mugarra ateneo zinegetikoak plater-tiro lehiaketa antolatu du domeka honetarako Mañarian, Urkiolara bidean dagoen Garaitorre jatetxearen inguruan. Tiroketa bi egongo dira: soziala eta irekia. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, 10:00etatik 12:00etara.

Lehiaketa irekian irabazleak txapela, 90 euro, urdaiazpikoa,

Arrateko Tiro Pichon jatetxean lagun birentzako bazkaria eta Gold serial kutxa bat jasoko ditu. Bigarren eta hirugarren sailkatuek 80 eta 70 euro jasoko dituzte hurrenez hurren, beste hainbat sarigaz batera. Laugarrenetik hogeita bigarreneira geratzen direnentzat ere egongo dira sariak. Lehiaketa sozialean lehenengo lauren artean geratzen direnek jasoko dute saria.



Lehiaketa mota bi daude, irekia eta soziala.



Zapatuan binakako partiduak izango dira.

Buruz buruko eta binakako frontenis torneoak Mallabian

Zapatuan binakako partiduak jokatuko dituzte udal pilotalekuan, eta domekan banakakoak eskolako

MALLABIA • J.D.

Mallabian buruz buruko eta binakako frontenis txapelketak jokatuko dituzte asteburuan, Mallabi kirol elkarteak eta udalak antolatuta. Zapatuan, 13:30ean, binakako txapelketa izango da udal pilotalekuan, eta bertan, lehenengo, Euskadiko egoiliar federatu bakoentzako eskualde-fa-

sea jokatuko da. Sariak hauek izango dira: txapela eta 300 euro bikote irabazlearentzat, 200 euro bigarrenarentzat eta 100 euro hirugarrenarentzat.

Domekan, 09:00etan, buruz buruko txapelketa jokatuko da eskolako frontoian. Kasu honetan, irabazleak 150 euro jasoko ditu, eta 100 euro bigarrenak.



Eguazten arratsaldean manifestazioa egin zuten Abadiñon.

LGTBI+ komunitateak kaleak hartu ditu, "biolentziaren gorakadari" erantzuteko

Durungaldeko LGTBI+ komunitateak eskualde mailako manifestazioa egin zuen Abadiñon, eguaztenez.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Ekainaren 28an, Harrotasunaren Nazioarteko Egunean, Durungaldeko LGTBI+ komunitateko kideek kaleak hartu zituzten. Eskualdeko kideak Abadiñon mobilizatu ziren, bertan izan zen-eta eskualdeko manifestazioa. Dozenaka lagun batu ziren bertan. Ondoren, Sokolé taldearen perkusio saioa egon zen Pino plazan. Durungaldeko LGTBI+ komunitateko

kideek diotenez, eskuin muturra "oldartzen" dabil eta "faxismoaren aurpegiarik latzenak geroago eta hurbilago" daude. Horregaitik eta "biolentziaren gorakada" horri aurre egiteko, ezinbestekoa da antolatzea. "Ezinbestekoa da Durungaldeko eta Euskal Herriko mugimendu transmaribolloa saretuta egotea, faxismoari eta zisheteroarauei aurre egin gura badiegu", azaldu dute.

Durungaldea asteen

Stop Bide Indarkeria elkarteak kanpaina informatiboa egingo du gaur

ZORNOTZA | Stop Bide Indarkeria elkarteak kideak gasolina zerbitzuguneetan egongo dira gaur, errepidean ibilbide luzeak egin behar dituztenei aholkuak eta gomendioak ematen. 16:00etatik 19:00etara Zornotzan egongo dira, autobide ondoko gasolindegian. Erregai hartzen duten pertsoneri orri-markagailu bana emango diete. Elkarrekin "zuhurtasun eta errespetu" mezua helarazi gura die gidariei.

Ernaik Udako Gazte Eskolak egingo ditu uztailaren 4an eta 5ean, Landako Eskolan

DURANGO | Ernaik hainbat berbaldi antolatu du uztailaren 4rako eta 5erako. Landako Eskolan olatu feministari, arteari eta kulturari buruzko berbaldiak eta etxebizitzaren auziari loturikoak izango dituzte hainbat eragileren partetik. Jorratuko dituzten beste gai batzuk euskalgintzaren fase berria eta migrazioa izango dira. Uztailaren 5ean, borroka ideologikoa eta markogintzaz arituko dira.

Andoni Unzalu politikari sozialista hil da

ABADIÑO | Andoni Unzalu Garaigordobil (Abadiño, 1956) PSE-EEko politikaria hil da gaixotasun luze baten ostean. Unzaluk ibilbide luzea egin zuen politikan. Patxi López lehendakariaren agintaldian Lehendakari zuzendakari nagusia izan zen. Zornotzako udalean ere lan egin zuen, informatikari. Euskara eta euskal kultura sustatzeko Aurten Bai fundazioaren parte izan zen. Askotan ibili zen iritzi emaile legez Euskal Telebistako eztabaida saioetan. Euskal abertzaletasunagaz kritikoa izan zen azken hamarkadetan. Zornotzan bizi izan da.



Marmitako txapelketa eta Altxa Porru taldearen erromeria izango dira Tabirako jaietako hitzordu nagusiak

DURANGO | Joan den asteburuan motorrak berotu eta gero, Tabirako auzotarrek jaietako ekitaldirik esanguratsuenak izango dituzte asteburu honetan. Zapatukoa izango da hitzordu nagusienetakoa, jada auzoan tradizio bihurtu den marmitako txapelketa egingo dute-eta eguerdian. Prestaketa lanei, baina, lehenago ekingo diete, 09:30ean. Egunean zehar spinning maratona, gazteen jolasak, eta mus eta partxis txapelketak izango dituzte. Gau partean Altxa Porru taldeak erromeria egingo du (21:00) eta DJ Kuku musika ipintzen ibiliko da gero (00:30). Bestalde, domekan goitibehera jaitziera (11:00) eta herri kirolak izango dituzte (12:30). Jaiak Maite Guevararen *Qué buen día* ikuskizunagaz amaituko dituzte.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Arriko
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

DIBA
KOOPERATIBA

Durungaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Zaldibarko jaiak 2023



Zaldibarko Udalak
Jai zoriontsuak opa deutsuez
zaldibartar guztioi



Zaldibar
Elizateko
Udala

Zaldibarko jaiak 2023

Ekainak 30, barikua

21:15 Profesional mailako pilota partiduak, Olazar pilotalekuan, Zaldua Pilota Taldeak antolatuta.

Ekainak 30, uztailak 1 eta 2

XXXI. Areto-futbol maratona kiroldegian, Zaldua Futbol Taldeak antolatuta.

Uztailak 1 eta 2

11:00-13:00 eta 16:00-19:00 Ur-jolasak

Olazarren.

Uztailak 2, domeka.

08:30-14:30 XXIX. Argazki Rallya liburutegi

zaharrear.

Uztailak 6, eguena

18:30 HERRIXEN JAIXEN jaitsiera Zaldua plazatik, eta txosnen irekiera.

18:30 Donien Atxa; ondoren, jaietako kartel lehiaketako sari banaketa.

19:00 Zaldibarko dantzariak; jarraian, **Zaldua kirol elkarteak** jaien hasiera iragartzeko txapligua jurtiko du, eta gero buruhandiak egongo dira.

19:30 ElektroHATXEranga, txosnagunetik hasita.

20:00 Odoloste-jana Olea kalean (euria eginez gero Bekoetxe kalean).

21:30 Pilota partiduak: Zaldua Pilota Taldeak antolatuta.

23:00 Kontzertuak txosnagunean: HAIZE ARROSA + EZTA ILEN + XAUKENA XAUK.

Uztailak 7, barikua

08:30 Familientzako mendi irteera udaletxeko plazan hasita. Amaitzean jatekoa egongo da eskoletako pilotalekuan.

12:30 Herri kirolak Zaldua plazan: aizkolariak eta Iparraldeko jokoak.

17:00-18:00 Apar festa udaletxeko plazan.

19:30 Matraka elektrotzaranga, txosnagunetik hasita.

23:00 Dantzaldia DJ Josemarigaz Euskal Herria etorbidean.

23:00 Kontzertuak txosnagunean: HOFÉ + BENGÓ + SARA GOXUA & LA NANI.

Uztailak 8, zapatua

10:00-13:00 Arku-tiroa ume eta helduentzat Olazarko galerian, Zaldibar Arku Taldeak antolatuta.

12:00 Tortilla txapelketa eskolako aterpean, Zaldua Saskibaloitza Taldeak antolatuta.

13:00-13:30 Zaldibar Arku taldeko arkularien erakustaldia Olazarko galerian, Zaldibar Arku Taldeak antolatuta.

14:30 Herri bazkaria txosnagunean.

16:00 3X3 saskibaloitza txapelketa kiroldegian, Zaldua Saskibaloitza Taldeak antolatuta.

17:00 Olinpiadak txosnagunean.

19:00 Afari-merienda Olea kalean, solomoa (1 €) eta sardinak (1 €).

19:00 Elektrokela elektrotzaranga, txosnagunetik hasita.

21:00 DJ Lander Luque Olea kalean.

22:30 URI & K-RAS txosnagunean.

00:00 BERANDUEGI taldeagaz erromeria txosnagunean.

Uztailak 9, domeka

10:30 BIZKAIKO ITZULIA, Bizkaiko txirrindulari eskolen arteko proba: **hasiberriak, eta kimu eta haur kategoriakoak.** Hasiera Autonomia kalean.

11:00-13:00 eta 16:00-19:00. Umeen jolas parkea eskolako patioan (euria eginez gero kiroldegian).

11:00 Zaldibarko koralak mezan abestuko du San Andres elizan.

12:15 Euskal dantzak Zaldua plazan.

19:00 Bertso saioa, Zaldua plazan: **Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Alaia Martin eta Joanes Illarregi.** Gai-jartzaile: **Ainhoa Urien.**

20:30 'Oh pera' zirku-ikuskizuna, udaletxe plazan (euria eginez gero Olazar pilotalekuan).

23:00 Su artifizialak.

Uztailak 15, zapatua

07:00 Zaldibarko XLIV. mendi martxa, Zaldua plazan hasita. Amaitu: udaletxeko plazan.

Uztailak 18, martitzena

18:30 Argazki rallyaren emanaldia eta sari banaketa liburutegi zaharrear.


OSTARGI
BERRIA
94 682 69 50



José David Espinosa Gonzalez

LEUNKETAK eta
BERNIZADURAK

OHOLTZA BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
PARKET EZARPENAK, OHOL ETA BALDOSA GAINEAN

Tel. 94 684 25 17
Mugikorra (Jose David) 687 537 732
jose.pinky@yahoo.com

Artikas Auzoa, 26 - 48288 Ispaster
San Andres Etorbidea 30, 1ºD- 48250 Zaldibar



Birgaikuntzak eta Berrikuntzak

SATE FATXADAK
Kanpoko isolamendu termikoaren sistema
ESTALKIAK
MERKATARITZAKO LOKALAK
ETXEBIZITZAK
ATARIAK
IGOGAILUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Zeharkalea, 10 behea
ERMUA (Bizkaia)
943 172 767 / 629 401 713 / 629 401 712



Behean, erdian, Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkatea herriko elkarteekin jaien aurkezpenean.

Herriko elkarteekin elkarlanean osaturiko jai egitaraua aurkeztu dute

Aurten 50. urteurrena bete duen Zaldua Kirol Elkarteak jaurtiko du herriko jaien hasiera iragartzeko txapligua; elkarteko presidente Arkaitz Padillari egokitu zaio ardura hori

ZALDIBAR • AITZIBER BASAURI

Zaldibarren dena prest dute herriko jaiak merezitako ondoetorria emateko. Jai Batzordeak adin guztietarako jai egitarau "parte hartzailea" osatu du, urteetan herrian errotuta dauden ekitaldiei eutsita. Hala, rock kontzertuak antolatu dituzte txosnagunerako, punta-ko bertsolariak batuko dituen bertso jaialdia prestatu dute, eta zirku ikuskizuna, kirol jarduerak eta dantzariak ere izango dira hurrengo egunetan. Herritarren artean harrera ezin hobea duen solomo eta sardina janak ere ez du hutsik egingo. Zaldibarko alkate Eneritz Azpitartek jai egitarauaren aurkezpenean nabarmendu duen moduan, herriko elkarteekin elkarlanean osaturiko egitaraua da.

50 urte lanean

Aurten 50. urteurrena bete duen Zaldua Kirol Elkarteak jaurtiko du jaiak iragartzeko txapligua, uztailaren 6an. Azken zortzi urtean

elkarteko presidentea den Arkaitz Padillari egokitu zaio udaletxeko balkoira igotzeko ardura hori, urduritasunik barik harturiko ardura, azaldu duenez. "Jai Batzordearen proposamena izan da eta oso pozik hartu dugu", dio umetatik Zaldua kirol elkarteko bazkide denak. "Zalduako kide lez beti esan

Alkateak gogoratu du ez dutela erasorik onartuko, "jaiak denok gozatzeko egunak direlako"

du 50 urte ez direla besterik barik egiten. Bada, eskerrak eman gura dizkiet Zalduan lan egin duten guztiei, sortzaileengandik hasi eta gaur egun lanean ari diren guztiengana heldu arte", gaineratu du. Zaldua Kirol Elkartean 900 bazkide dira momentu honetan. Elkarteak beste horrenbeste urte beteko dituen galdetuta, Padillak aitortu du

horretan lanean jarraitzen dutela. Orain hilabete eskas ospatu zuten urteurrenako ekitaldi nagusia. Bazkaria egin zuten frontoian, eta 380 bat lagun elkartu ziren bertan.

Dena dela, jaiak behin betiko ondoetorria emateko eguna heldu artean, motorrak berotzeko asteburua izango da hau. Gaur, XXI. Areto-futbol maratona hasiko da kiroldegian, eta Olazar pilotalekuan profesional mailako pilota partiduak jokatu dira. Ur-jolasak egingo dituzte Olazarren, eta XXIX. Argazki Rallyak ere ez du hutsik egingo.

Erasorik ez

Eneritz Azpitarte alkateak gogoratu du ez dutela erasorik onartuko, "jaiak denok gozatzeko egunak direlako". Ildo horretan, herritarrei jai zoriontsuak opatu dizkie. "Egunez eta gauez izango dira ekitaldiak, askotariko ekitaldiak, eta herritarrek disfrutatzea espero dugu", gaineratu du Azpitartek.

SIKULAN Cutting Tool Technologies
WWW.SIKULAN.COM
KASU BAKOITZERAKO SOLUZIO EGOKIENA

C/ Zubiaurre 5 - E-48250 Zaldibar - Bizkaia
Tel. 94 682 74 78 - sikulan@sikulan.com

maderlan
Interiorismoa · Berrikuntzak · Altzariak

Bilbao etorbidea, 9
48250, Zaldibar
Tel.: 946 225 074 · info@maderlan.com

IMENDIA

- Bideo alokairua
- Fotokopiak
- Prentsa salmenta
- Gozokiak

Tel./Faxa: 946 827 413
Zalduasolo E.7 · ZALDIBAR

ZUTITU ZENTROA
N.O.F. (Blay metodoa) · OSTEOPATIA
· KIROL TRATAMENDUA ·
KIROMASAJEA · AKUPUNTURA ·
NESA XSIGNAL

Ibon Padilla Ibarra
Naturopata kolegiatu zk.: 4707

Santa Isabel 2. behea - Zaldibar
AURRETIKO HITZORDUA 618 614 972

gaurko
asesoria zaldibar

Zalduasolo plaza 1, behea
Zaldibar - 48250
946 225498
gaurko@gaurko.net

GENERALI

SORGIN

Euskal Herria Etorbidea, 8
48250- Zaldibar

ELECTRICIDAD
EGUZKI, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Arzubia, 10 Apdo.115
48220 MATIENA - ABADIÑO
eguzki@elect-eguzki.es
689 709 602 Jabi
946 815 201 f: 946 818 658

MUELLES ZALDUA S.L.

MALGUEN FABRIKAZIOA OROKORREAN

Tel.: 946 827 801 · Faxa.: 946 827 654
San Andres etorbidea, 1
48250 ZALDIBAR
info@muelleszaldua.com
www.muelleszaldua.com

Karobi
TABERNA

Zalduasolo plaza, 2
48250 Zaldibar
Tel.: 654 619 644

BARATZA FRUTADENDA URDAITEGIA

Sta. Isabel, 2 behea
Tel.: 946 225 063
Zaldibar, Bizkaia

PAULAREN ZOKOA KAFE
EL RINCON DE PAULA

07:00etatik aurrera zabalik

Euskal Herria, 18
946 550 481 - Zaldibar

Paularen Zokoa



MOTOR GEHIGARRIA 2023



Iurretako Lanbide Heziketako gazteak Bilbon egindako proba dinamikoetan, euren egindako auto elektrikoagaz.

'Iurretako Ferraria', Lanbide Heziketako ikasleek hutsetik diseinatu eta sortu duten auto elektrikoa

Iurretako ikastetxeko talde batek Euskelec txapelketan parte hartu eta urtebeteko prozesuan auto elektriko bat eraiki du

IURRETA • J.D

Irudietan ikusten dena Iurreta Lanbide Heziketa ikastetxeko ikasleek hutsetik sortu duten auto elektrikoa da, ikasturte oso bateko lanaren emaitza. Bide luzea egin dute helmugara heltzeko: hamaika aldapa igo, beste hainbeste bidegurutzetan dudatu, ondokoari entzuten ikasi, taldean lan egiten trebatu... Eta, harro egoteko modukoa den azken emaitzatik haratago, bidean ikasitako horixe da betirako bidelagun izango dutena eta lan merkatuan balio erantsi bat eskainiko diena.

Trebakuntza horren garrantziaz jabetuta, Iurreta LHII ikastetxeak urtero parte hartzen du Euskelec-en, Euskal Herriko Lanbide Heziketako Ibilgailu Elektrikoen txapelketan. Bertan parte hartzen duten Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleek ehuneko ehunean elektrikoa

den ibilgailu bat diseinatzen eta eraikitzen dute, oinarri motor komun batetik abiatuta. Bidean sormena, talde lana eta erabakiak hartzeko gaitasuna lako balioak lantzen dituzte. Txapelketaren seigarren aldia, Iurreta LHII-ko erdi eta goi mailako —16tik 20 urtera artekoak— hiru mintegitako ikasle talde batek parte hartu du, Euskal Autonomia Erkidegoko, Kantabriako, Madrilgo, Valentziako, Gaztela eta Leongo eta Gaztela-Mantxako beste 26 zentrotako taldeekin batera.

Metodologiarik onena

Prozesua luzea izan da. Hilerik hile erronkak gaitzen joan dira: merkatuaren azterketa, materialen hautaketa, autoaren diseinua, eraikuntza, marketinga, diru laguntzak lortzea... Horrela eraiki dute autoa, modu antolatuan eta txapelketako gaitasunak zikloan irakasten diren horiekin bateratuta. Lan

egiteko modu hori saritu egin dute txapelketan eta ikastetxeak proiektu metodologikorik onenaren saria irabazi du.

Lehenengo fase luzea amaitzeko, euren proiektua epaileen aurrean aurkeztu eta defendatu dute ikasleek. Bigarren fasea dibertigarriagoa izan da: autoa proban ipintzea. Dibertigarriagoa ez ezik,

Lanbide Heziketa ikastetxeak proiektu metodologikorik onenaren saria irabazi du

laburragoa ere bai, egun batean kontzentratu delako. Auto elektriko guztiak ekainaren 3an batu ziren Bilboko San Mames futbol zelai ondoko lautadan. eta orduan egin zituzten proba guztiak. Iurretarren autoa orduan bataiatu zuten 'Iurretako Ferraria' izenagaz

ekimeneko esatariak, kolorean duen antzekotasunagaitik. Baina errendimenduarengaitik ere izan zitezkeen, proba batean baino



Erresistentzia proban seigarren geratu ziren.

gehiagotan aurrean ibili zelako. Esaterako, erresistentzia proban sei onenen artean geratu zen.

Beldurra kentzeko

Ikasleek sarietan zuten burua, baina irakasleentzat ez da hori garrantzitsua. Beste arlo batzuetan egiten dute azpimarra. "Hainbat mintegitako ikasleak talde lanean aritzea, antolatzeke era desberdinak ikastea, eztabaidak gaitzen... Hori guzti hori balio erantsi bat da enpresa mun-

"Talde lanean aritzea, antolatzeke erakikastea... balio erantsi bat da enpresa mundurako"

durako. Eta euren artean sortu den giroa... Oso ilusionatuta ibili dira", dio Bego Gómez irakasleak. Gorka Mujika eta Xabat Arrate irakasleak ere proiektuko tutore eta bultzatzaileak izan dira. Esperimentuak beldurra kentzeko balio izan diela uste du Gomezek: "Horrelako prozesu batean beldurra ohikoa izaten da: 'Bide hau aukeratzeko badugu baina bide okerra bada?'. Batzuetan erabakiak hartu behar direla ikasi dute. Ez dela ondo irtetzen? Aztertu dezagun zergaitik, zuzendu norabidea eta aurrera. Konfiantza hori irabaztea inportantea da eurentzat".



ARRIBIDE

GASOLINDEGIA

estacionservicio@arribide.com
arribide.com

946 818 381
POL. IND. ARRIANDI, P-1
48215 IURRETA-BIZKAIA



TAILERRAK

Udako oporretara joan aurretik ibilgailuen mantenua egoki dagoen begiratzea garrantzitsua da. Horretarako, Durangaldean konfiantzazko tailer ugari ditugu. Errepidera irten aurretik, gogoratu kotxea behar den moduan dagoen begiratzea.



AUTO REPARACIONES AMAYA

UAI Industriegunea, 1 lurreta

Tel.: 946 812 123

Multimarka tailerra.



AUTOS ELORRIO 2014 S.L

Betsaide Pol. 11, Elorrio

Tel.: 946 583 060

Mekanika orokorrean. Aukerako ibilgailuen salmenta. Karrozeria.



DESGUACES PILASTRA

Fauste Auzoa, 18, lurreta
Tel.: 946 201 787

Ibilgailuak tratatzeko eta deskutsatzeko baimendutako zentroa gara. Desegiteko ibilgailuak erosten eta marka guztietako pieza erabiliak saltzen lan egiten dugu.



URANGA AUTOAK

Goitondo poligonoa 1.pab behea, Mallabia

Tel.: 946 811 940

Whatsapp: 685 751 848

Ibilgailuen konponketa eta mantenimendua.



AJ MOTORS

Tabernabarri Ind. 4A - 29 zk, lurreta

Tel.: 677 394 134

Era guztietako mantentze-lanak eta konponketak egiten dizkiegu autoei, baita diagnostikoak eta azterketak ere. Gure indargunea lehiaketako ibilgailuak dira, bereziki BMW markakoak.



AUTOGAIN TALLERES

San Agustin Ind., 57 - 6.nabea, Elorrio

Tel.: 946 056 732 / 679 174 367

Txapa. Pintura. Pneumatikoak.



CARROCERIAS OLAKUETA

Eitua Ind. ,47, Berriz
Tel.: 946 824 501

- Kolore aldaketa.
- Erabateko desmuntatzea.
- Era guztietako kolpeen konponketa.
- Karrozerien kolorea aldatzea.
- Mekanika guztia.

TAILERRAK



AUTO REPARACIONES MALLABIENA

Mallabiena z/g, lurreta

Tel.: 946 816 150

Ibilgailu industrialen konponketa orokorra.



MOTOS TABIRA

Arzubia indus.10-B pab., Matiena- Abadiño

Tel.: 946 814 068

Salmenta, konponketa, boutiquea.



GnG ELORRIO

San Agustín, 1 Elorrio

Tel.: 637 720 071

Zure konfiantzazko tailer mekanikoa.



NEUMATICOS ETXEBARRIA

Uribitarte Indust. 6, Matiena- Abadiño

Tel.: 946 232 520

Olio aldaketa, pneumatikoak (marka guztiak), balazta-pastillak, motelgailuak.



URKILAN

Urkizuaran 39, Elorrio

Tel.: 946 820 237

KMO autoen salmenta
Mekanika orokorra
Elektronika
Aire girotua R134A eta 1234yf
Gurpilen aldaketa
IAT aurreko azterketa



GARAJE MIGUEL

Arbizua 10 - 1 Pab., Matiena- Abadiño

Tel.: 946 819 161

Garbiketa, tapizeriak, mekanika, gurpilak.



TALLERES SERAFIN

Elorriagazar 11, Matiena- Abadiño

Tel.: 946 814 807

45 urte baino gehiagoko esperientzia. Gurpilen lerrokatzea, olio aldaketa, karrozeria, gurpilen jartzea, IAT pasatu aurreko azterketa.



BERRIZ MOTOR SPORT

Eitua poligonoa 3A, Berriz

Tel.: 946 212 279

Klimatizazioa, elektrizitatea, elektronika, balaztak, mantentze-lanak, mekanika orokorra eta azkarra, pneumatikoak eta IAT aurrekoa.

“Gainberotzeak dira hamabost edo hogeituro urteko autoen kasuetan buruko minik handienak”

Miguel Ángel Cubero Garaje Miguel tailerreko burua udako bidaietan zaindu beharreko berba egin du



GARRAIOA • IGOR GALARZA

Durangotik Traña-Matienara bidean, autoaren sarreraren eskuma aldera beti dago mugimendua. Berdin dio asteko zein egun den. Miguel Ángel Cubero Pérez (Abadiño, 1966) Garaje Migueleko burua da, eta pertsona ugarik eramaten du bere autoa bertara konpontzera edo errebisioa egitera. Uda garaia hasi da, baina urte osoa lan askogaz daramatela dio Cuberok.

Mugimendu handia dago garajeetan. Igarri da uda etorri dela?

Gaur egun ez da orain dela hogeituro urteko moduan igartzen uda sasoa. Lehen, jendeak urtean behin ekartzen zuen autoa garajera, eta

egin beharrekoa uda hasieran egiteko aprobetxatzen zuten. Oraingo autoen mantentze-lanak geroago egiten dira; 30.000 km edo urte bi irauten dute gehienek. Igarri dugu askok IATA (Ibilgailuen Azterketa Teknikoa) pasatu aurretik ekartzen dutela autoa, eta bezeroak urte osoan baditugu ere gehienak uda sasoiaren etortzen dira.

Oporretan joan aurretik, behar den moduan egiten ditugu autoetako doikuntzak?

Egungo autoetan ezin da gauza asko ikutu. Bidaia bat egin aurretik begiratu beharreko gauza bakararra erroberen presioa eta galgako likidoa kontrolatuta edukitzea da, eta, motorrari dagokionez, likido hoz-

garria eta izotz-contrakoak behar diren moduan egotea.

Ondo zaintzen dugu autoa?

Orokorrean, bai. Kontuan izan behar dugu auto moten katalogoa oso zabala dela orain: elektrikoak, hibridoak, diesel autoak, gasolina autoak... eta erosleak ez daki ondo zer erosi; beraz, auto zaharraren bizitza luzatzea erabakitzen du. Guk lan mordoa izan dugu azken urtean, eta horregaitik da, IAT azterketak direla batetik, matxurak bestetik...

Autoak zaharragoak badira, matxuratzeko arrisku handiagoa dago?

Tira, bakoitzaren arabera da. Oso ondo zaindutako auto zaharrak daude. Normalean, jendeak

ondo zaintzen du bere ibilgailua. Beharbada auto zaharrek izan dezaketen matxurarik handiena enbragearena izan daiteke. Urteen poderioz higatzen doa eta konponketaren kostua handia izan daiteke.

Oporretarako auto bat alokatu dezakegu.

Baina ez gaude ohituta. Ikusten gabiltzana da geroago eta erosle partikular gehiagok hainbat hila-betarako edo zenbait urtetarako alokatzen duela autoa; ‘renting’ edo ‘leasing’ deitzen dira formula horiek. Eta hori egiten dute ez dakigulako etorkizunean zer muga ekologiko izango ditugun autoetan, hau da, zer auto motek

izango duten baimena errepidean mugitzeko.

Zein izan daiteke hamabost bat urte dituzten autoen arazo nagusia?

Gainberotzeak dira hamabost edo hogeituro urteko autoen kasuetan buruko minik handienak. Sistemako hodiak degradatzen doaz, hodi horiek kautxo eta halako materialez eginda daude eta seigarren urtetik aurrera goma gogortu egiten da.

Geroago eta erosle partikular gehiagok hainbat hila-betarako edo zenbait urtetarako alokatzen du autoa

Eta zelan kontrolatu dezakegu hori?

Uraren tenperatura kontrolatu beharra dago, horixe da zaindu behar den gauzarik garrantzitsua. Badaude beste gauza batzuk ere: izotz-contrakoa urtean behin edo birritan aldatzea komeni da, aldatu ezean ur bihurtzen da eta sistema hondatu dezake.

Badago zer edo zer begiratu behar-ko gurek eta inoiz ikusten ez duguna?

Indargetzailea. Inork ere ez dio begiratzen, eta urteekin higatu egiten da. Izan ere, gidaria autora moldatzen da, bere mugimenduetara ohitzen da. Baina autoek bihurtzeetan izan dezaketen mugimenduetan asko igartzen da, eta zaindu beharrekoa da.

Beraz, bidaia bat hasi aurretik zer begiratu behar dugu?

Gurpilak, presioa, kanpoaldea zein barrualdea ondo eta degradazio gutxigaz daudela begiratu; autoko nibelak eta ura. Horiek begiratu behar dira.

Abiadurak zerikusirik izan dezake?

Ez da gauza bera 120km/h-ra joatea edo 100km/h-ra eta galga sakatu behar izatea. Autoaren abiadura moteltzeko, distantzia handiagoa behar da 120ra bazoaz. Baina bidaia arrunt batean dena ondo badoa, ez luke eragin behar.

ALLUITZ MOTOR, S.L.

Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia
Tel.: 946 202 004
taller.alluitz@vasataldea.eus · www.alluitzmotor.com





Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide



LABIRINTOA

Zein da bide egokia irlatik irteteko?



DIFERENTZIAK

Topatu itzazu zazpi diferentziak.



BIKOTEAK EGIN



Maite Guevara Klown gasteiztar ezagun eta ibilbide luzekoak '¡Que buen día!' lana aurkeztuko du Tabiran

Maite Guevarak '¡Que buen día!' bere azken lana aurkeztuko du Tabirako parkean; eguraldi txarra eginez gero, Ibaizabal ikastolan egingo dute



Festa Clown 2021.

jaialdian. 2021ean estreinatu zuen ikuskizuna, Gasteizen, KaldeArte jaialdian. Pablo Ibarluzeak zuzentzen du obra, eta Federrek finantzaturiko Travesía - Pyrénées de cirque proiektuaren elkarlanagaz sortu dute obra.

Urteko pailazorik onena

Guevarak Urteko Pailazoaren 2023ko saria jaso du oraintsu Katalunian, Vilanovako Klown Azokan, hain zuzen ere. Hitzordua erreferentziakoa da klown munduan, eta aukera aparta gasteiztarraren ibilbide profesionala saritzeko; besteak beste, Payasos Sin Fronteras GKEak, Pallapullas eta Xarop Clown konpainiek, eta Jordi Saban Roy Sabanni pailazoak jaso dute saria. Maite Guevarak Latinoamerikako eta Europako irakasleekin egin du formakuntza urte luzeetan, eta 2006an ekin zion klown ikuskizunak egiteari. Abiapuntu lez, Argentinara egingo dako bidaia bat aipatu izan du. "Bertan deskubritu nuen pailazoen zirkutik kanpora ere eragin dezaketela barrea, kalean lan egin dezaketela; horrez gainera, maite dut klown lez aritzea, publikoari barrea eragiteaz gainera gogoeta egin dezan ere lortu dezakezu eta", azaldu izan du.

ANTZERKIA • A. M.

Klown munduan Espainiako Estatuko erreferenteetarikoa den Maite Guevara gasteiztarra Durangaldera bueltatuko da aste honetan. Hain zuzen ere, domekan, 19:00etan, *¡Que buen día!* ikuskizuna aurkeztuko du Durangoko

Tabira parkean; euria eginez gero, Ibaizabal ikastolan egingo dute. Sudur gorria ipinita, Guevara Martina Nuatina bihurtuko da ikuskizun honetan, eta irribarrea eta barre-algarak eragiten ahalegingo du bertan. "Eurria zein elurra egin, egunero izan daiteke egun

on bat. Begiak zabaltzen dituenak beste modu batera ikusi dezake mundua, eta hori erakutsiko du Martinak", azaldu du. Publiko guztiarentzako moduko ikuskizuna izan arren, "jolasteko gogorik ez dutenei edo aspertuta bizi gura dutenei" ez joateko deia egin die

Guevarak. "Batez ere, ondo pasatzeko gogoia dutenentzako klown ikuskizuna da. Izan ere, hona jolastera etorri ez bagara, zertara etorri gara?", gaineratu du.

Guevarak dozenaka plazatan aurkeztu du *¡Que buen día!* tartean, ekainean, Iurretako Kalez kale

Gerediagak kofradien "historia bizia" zabaltzeko liburua argitaratuko du

Liburuaz gainera, kofradiek webgune propioa sareratuko dute irailetik aurrera



Markel Onaindia, Iurretako kofradietako lekukoekin.

ONDAREA • A. M.

Gerediaga Elkarteak Iurretako kofradien historia batuko du liburu batean. Historiaren ikerketa eta hainbat eragileren lekukotzak izango dira liburuaren oinarria, eta kofradiek gaur egun ere duten garrantzia erakusteko asmoz publikatuko dute liburua. Liburua irailerako egongo da prest. "Lan historiko hutsetik harago joatea da asmoa. Dibulgazio lana da helburua, eta, batez ere, kofradiek jendarteratzea", azaldu dute Gerediagatik ohar baten bitartez. Azken 50 urteetako lekukoekin testigantza batuko dituzte. Testuez eta bideo grabazioez Markel Onaindia arduratuko da, diseinuaz eta marketazioaz Eñaut Aiertzaguena eta dokumentazioaz eta artxibo historikoaz Jon Irazabal.

Durangoko Orfeoia emanaldia egingo du domekan

Kontzertua Durangoko Plateruenean izango da, 19:30ean

MUSIKA • A. M.

Durangoko Orfeoia kontzertua emango du domekan, uztailak 2, Durangon, Plateruena kultur aterpean; udan egiten duten kontzertua izango da domekoa. Emanaldia 19:30ean hasiko da. Aurten, Fernando Urainek

egin dute zuzendari lanak, eta Maite Molina eta Andres Tejo musikariek ere parte hartuko dute kontzertuan, orfeoiko ki-deez gainera. Kontzertua doakoa izango da eta ez da sarrerarik aurretiaz erreserbatu behar izango.



Durangoko Orfeoia.

Back Chat Brass Erresuma Batuko taldeak irabazi du Haizetara jaialdiaren 16. edizioa; Zornotzako Udala pozik dago harreragaz

Asteburuan nazioarteko kaleko musikaren jaialdia den Haizetara egin dute Zornotzan; hamaseigarren edizioa izan du lehiaketak aurtengoa



MUSIKA • A. M.

Zornotzak kaleko musikariek bizi izan zuen bere astebururik musikarena. Musikariak gora eta behe aritu ziren hiru egunean zehar, Zornotzako herriguneko hainbat kaletan. Kaleko fanfarreen, banden eta musikarien Haizetara nazioarteko lehiaketak jendetza batu zuen kaleetan, eta bederatzi banda lehiatu ziren elkarren artean, 10.000 euroko saria irabazteko. Azkenean, Erresuma Batuko Back Chat Brass taldeak eraman zuen sari nagusia. Eta La Saugrenue taldeko Sebastien Lalange tronboilariak irabazi zuen musikaririk onenaren saria; 1.000 euroko saria poltsikoratu zuen. Aritz Labrador bandako zuzendaria, Onintze musikariak, Ubane Uzinek eta Cecilia Paganinik osatu dute epaimahaia. Publikoaren saria, Harmony's brass band taldeak irabazi zuen: 4.000 euro; Zornotzako Udalak herritarren parte hartzea nabarmendu gura izan du, izan ere, 2.704 lagunek eman zuten botoa. Hiru talde horiez gainera, Bulbalkan, Dirty Durum Brass Band, Gata Brass band Jazz Hunters, Fanfare Jukepop eta Renniw brass band taldeak lehiatu ziren. Sari banaketa ekitaldia domekan izan zen, 13:00etan, Zelaieta parkean. Lehiaketako bederatzi taldeez gainera, beste hiru taldek ere parte

hartu zuten gonbidatu lez; tartean, Fran Lasuen eta Sandra Fernández de Agirre zornotzarra kide diren La Kermes del Vermú taldeak.

Kaleko emanaldiez gainera, jam sessiona ere egon zen Harrison hotelean, Jou González laukotearen eskutik. Horrez gainera, Turukutupa talde gasteiztarraren *Rezidonk* umeen instalazioa egon zen Zelaieta parkean, zapatuan.

Harmony's taldeak irabazi zuen publikoaren saria; musikaririk onenaren saria Lalangek eraman zuen

"Posizioa sendotuta"

Zornotzako Udala pozik agertu da ekimenaren hamaseigarren edizio honek izan duen harreragaz. "Lehiaketa honek kaleko musikaren esparruan nazioarteko erreferente lez duen posizioa sendotu du, artistei euren talentua erakusteko aukera emanez eta komunitateari kalitate handiko musika ikuskituzenez gozatzeko aukera emanez", azaldu dute udaleko iturriek ohar baten bitartez. "Oso lehiaketa arrakastatsua izan da. Bisitari ugari ekarri du herrira eta jai giroan murgildu du herri osoa, gainera", nabarmendu dute.



Goian, Back Chat Brass taldeko musikaria; behean, Sebastien Lalange.

Gai librean

Haizea dabil

Nerabeak ginenean askok amesten genuen musika-talde bateko parte izatearekin. Gaztetxeetara joaten ginen kontzertuak ikustera; gu baino nagusiagoak zirenek hartzen zuten ohol-tza, eta guk beraiei begira igarotzen genituen orduak. Eszenatoki gainean zeudela erreparatzen genien lehenengo, eta barra inguruan ondoren. Izan ere, taulagaina ez ezik, edozein aretotan kabitzen dena betetzen zuten bandetako partaideek.

Ez ziguten esaten, baina guk jakin bagenekien, inbidia baino, maitemina edo erakarpena sentitzen genuela uste zutela batek baino gehiagok. Orduan klasiko bat zena erreproduzitzen genbiltzala, hain zuzen: neska gazteak oholtzetako (ustezko) erregeekin larrua jo guran gindoazela emanaldietara. Beraiek ez ziguten esaten,



Miren Erdoiza Mujika
Irakaslea

Gure pizgarria ez zirela haiek, gure bandaren izena afixaren batean idatzita egotearekin amesten genuela baizik

"Amamak esaten zigun moduan, banderak trapuetarako baino ez dira", eta guk haizea behar dugu eszenan

eta gu ere ez ginen ausartzen oker zebiltzala aitortzera. Gure pizgarria ez zirela haiek, gure bandaren izena afixaren batean idatzita egotearekin amesten genuela baizik.

Nerea Ibarzabali irakurri nion behin emakumeok* ez garela zer-baitetan apuntatzen txarto egin dezakegula uste baldin badugu. Hori gertatuko zitzaigun beharbada. Ez genuela behar bezainbeste afinatzen kantuan, edo gitarra bat jotzeko ez geneukala solfeo ezagutza nahikorik, edo bateriarekin ez ginela horrenbeste ausartzen...

Mañariko plazako kontzertuan Ritxi gitarrista eta (nire ustez) poetak haxe esan zuen aurreko batean: "amamak esaten zigun moduan, banderak trapuetarako baino ez dira", eta guk haizea behar dugu eszenan; banderak, trapuak edo dena delakoak astintzeko. Eskerrak Gora Etorri, Pimpilinpussies, Laru, Hatxe, Insömnia, Irati Otadui, Piztu, Nerea Aizpurua, Irati Bilbao, Gehi Zazpi, Les Sauvages eta DJ Kuku ernaldutik direla gure nerabezartik hona. Baina ez da nahikoa.



Michel Emmanuel Diatta

Boxeolaria

DURANGO | 1999

“Lehen borrokatzeko asmoa nuen bakarrik; orain konpromisoa exijitzen dit boxeoa”

Euskadiko txapelketa irabazi eta gero, atsedean hartu aurretik borrokaldi bat izango du uztailaren 7an, Zornotzan

BOXEOA • IGOR GALARZA

Zirkin gimnasia sartu bezain laster ikusgai daude hainbat borroka kiroleko eskularruak eta gerrikoak. Michel Emmanuel Diatta hainbat titulu du jada: azkena, Euskadiko Txapelketa. Argazkirako eskularru batzuk aukeratzeko esandio IndarXsport taldeko Dani Nuñez entrenatzaileak. Gorriak aukeratu ditu, begiko dituenak.

Lehiatzera bueltatu eta edukitako sei borrokaldiak irabazi dituzu; tar-

tean, Euskadiko txapelketa. Ez da marka txarra.

Gustua ematen du horrela bueltatzeak. Hainbat kontutan hobetu duzula igartzen duzu, eta gehiago ikasteko eta hobetzeko gosea ematen dizu horrek.

Zer pentsatu zenuen Euskadiko txapelketa irabazi zenuenean?

Txapelketako aurreko edizioan ere lehiatu nintzen, eta orduan galdu egin nuen lehenengo borrokaldia. Aurten, borrokatutako hirurak irabazi ditut. Helburua irabaztea

zen eta oso pozik geratu nintzen emaitzagaz, eta gehiago lehiatzeko gogoz geratu nintzen.

Prestaketa berezia egin zenuen txapelketari begira?

Egunero entrenatu naiz. Ez naiz etortzen saioetara “tira, Euskadiko txapelketa prestatuko dut” pentsatzen. Zirkinera ondo pasatzeko asmoz eta ea zer ateratzen den ikusteko eta gozatzeko asmoz nator.

Lau urtean geldirik egon zara. 20 urteko Michel boxeolariaren eta 24 urtekoaren artean badago desberdintasunik?

Aldaketa handia dago. Helduagoa naiz boxeatzeko. Aldi berean, lehenengo gauza batzuen falta igartzen dut. Lehen denbora egokia eskaintzen nien entrenamenduei, eta gehiago gozatzen nuen. Orain gehiago pentsatzen dut entrenamenduetan, eta gogorragoa egiten ari da. Nik asko gozatzen dut, eta lehen borrokatzeko asmoa nuen bakarrik. Orain konpromisoa exijitzen dit boxeoa. Euskadiko txapelkun geratzea ez da batere erraza.

Zure entrenatzaile Dani Nuñezek

esan didanez, EAEn nogaz borrokatu ezin topatu zabilzate. Zer pentsarazten dizu horrek?

Ez dut asko pentsatzen horretan. Lehiatzea gustatzen zait, betiere kontuan hartuta noren kontra nabilen. Pareko mailan dagoen norbaitegaz lehiatzea gustatzen zait, eta bakoitzak berea eman dezala, eskaintzeko duena.

Borrokaldirako ringera igotzerakoan, aurkarien kontzentrazio aurpegiaren aurrean irribarre bategaz agertzen zara. Zer pentsatzen duzu borrokatu aurretik?

Beti irribarre bategaz noa borrokaldira. Zelan sentitzen naizen aztertzen ahalegintzen naiz, eta ringera pozik igotzen. Egia esan, aurkariak sorpresa hartzen dute nire jarreraren aurrean.

Zenbat entrenatzen zara?

Hemendik kanpora hemen baino gehiago entrenatzen naiz, baina hemen ere askotan egoten naiz, boxeoa eta kick boxing monitorea ere baina eta. Entrenamenduetan ondo pasatzen ahalegintzen naiz, ahalik eta gutxien sufritzen (barrez). Ba-

tez ere erresistentzia lantzen dut, eta gimnasioan asko lantzen dugu teknika.

Teknika da zure indargunea?

Baietz esango nuke. Beti nabil horretan pentsatzen.

Taldeak asko lagunduko du saio horietan.

Asko. Norbera baino ez da igotzen ringera, baina talde osoarena da lana. Gimnasioan badaude beste modalitate batzuetan borrokatzen direnak, eta denok laguntzen diogu elkarri.

Baduzu erreferenterik?

Boxeo asko ikusten dut eta borrokalari guztiengandik zerbait ikasten ahalegintzen naiz. Muhammad Ali dut boxeolaririk gogokoena. Nire ustez, inoizko boxeolaririk onena izan zen.

“Beti irribarre bategaz noa borrokaldira. Zelan sentitzen naizen aztertzen ahalegintzen naiz, eta ringera pozik igotzen”

“Uztailaren 7an Carlos Henrique Barbosa kickboxing borrokalari profesionalaren kontra boxeotuko dut”

Ingurukoan laguntza ere igartzen duzu?

Asko. Lagunak borroketara etortzen dira eta asko animatzen naute. Eta etxeokoe berdin.

Zer borrokaldi geratzen zaizu aurretik?

Uztailaren 7an azken borrokaldia izango dut oporralditxo bat hartu aurretik. Gainera, Euskadiko txapelketa izan eta astebetara, Espainiako txapelketako izen-ematea zarratuta zegoela esan ziguten. Pena da, nire ustez zer edo zer polita egiteko aukera nuen eta. Melillan izango da eta prest geunden hara joateko ahalegina egiteko. Joko Olinpikoetan lehiatzen diren boxeolariekin borrokatzeko aukera nuen.

Uztailaren 7rako sorpresa itzela duzue prestatuta. Zer da?

Zornotzako Royal Boxing TM taldeak bertan borrokatzeko gonbidatu gaitu. Bertan, Carlos Henrique Barbosa kickboxing borrokalari profesionalaren kontra boxeotuko dut. Bere aurka borrokatu gura nuen, eta, zorionez, eskaintza horixe heldu zitzaidan. Erronka polita izango da. Profesionala da, baina boxeoko arauetara moldatu behar da. Ondo pasatzera irtengo naiz.

Zapatuan Juanjo Moreno gogoratuko dute, Tabirako saskibaloia klubeko "itsasargia", ekimenez beteriko egun batean

Pandemiagaitik egin barik geratu zen omenaldia egingo diote Morenori. Saskibaloia partiduak, ekitaldia eta entrenatzaileen ikastaro berezia antolatu dituzte



Juanjo Moreno 2014an, Gerediagaren Teila saria jasotzeko ekitaldian. **TXELU ANGOITIA**

SASKIBALOA • J.D.

Juanjo Moreno 2021eko martxoan hil zen, mundua oraindino pandemian murgilduta zegoela. Orduan ezin izan zioten merezi zuen moduko errekonozimendua egin urte askoan Tabirakoren arima izandakoari, eta zapatu honetan zorrazki-

tatuko dituzte. Tabirakok ekitaldiz beteriko eguna antolatu du zapatuak Landako Kiroldetxean; tartean, Morenoren figurari gorazarre egiteko ekitaldia. "Pandemian ahal zena egin genuen. Gerora, Morenok merezi zuen moduko zerbait egiteko idea bota nion zuzendaritzari

eta hortik dator biharko ekitaldia. Bere garrantzia eta lana gogoratzeko modua izango da", adierazi du Tabirakoko Juan Miguel 'Txiki' Morenok.

Harrobiko saskibaloia partiduekin hasiko dute eguna. 10:30ean Tabirakoko mutil kadeteek Euskadiko

selektzioaren kontra jokatu dute. 12:30ean nesken txanda izango da; kasu honetan ere Tabirakoko eta Euskadiko selektzio kadeteak izango dira protagonista. Partidu bien artean egingo dute omenaldi ekitaldia, 11:30ean. Tabirakon urteetan jokatu duten eta Moreno

ezagutu zuten sei jokalarik berba batzuk esango dituzte bere figura gogoratzeko. Morenoren senide batzuek bertatik bertara jarraituko dute ekitaldia, eta sorpresaren bat egingo da eurentzat.

Antolatzaileek Landako Kiroldetxera joateko deia egin dute. "Badakigu ez dena asteburu erraza, Tourraren hasiera dela eta, baina egotea merezi duen ekitaldia da eta denentzat dago zabalik", dio 'Txiki' Morenok.

Arratsaldean, saskibaloia entrenatzaile ezagun bi etorriko dira Durangora, Txus Bidorreta eta Ricard Casas, eta saskibaloia inguruko ikastaro berezi edo 'clinic' bat emango dute. 60 gaztek baino gehiagok parte hartuko dute bertan, eta antolatzaileak pozik daude izen-emateak izan duen harreragaz.

"Arima" eta "itsasargia"

Abizen bera izan arren, 'Txiki' Moreno eta Juanjo Moreno ez ziren senitartekoak, baina bai lagun handiak, urte askoan. Hain zuzen ere, Juanjo ipini zion 'Txiki' ezizena. 'Txiki'-k ondo ezagutzen du Juanjo garrantzia Tabirakon. "Klubaren arima, gidaria eta itsasargia izan zen urte askoan. Bera barik Tabirako beste zerbait izango zen gaur egun", azpimarratu du.

Deniba Konare Europako txapelketara sailkatu da, bere ibilbidean lehenengoz

Europako Kopako proban lorturiko zilarrezko domina eman dio aukera judoka durangarrari

JUDO • J.D.

Irailan Europako judo txapelketa lehiatuko dute Herbehereetan, eta hantxe izango da Deniba Konare durangarra, bere ibilbidean lehenengoz. Europako Kopako probetako emaitzei eskerrak lortu du sailkapena; hain zuzen ere, apiril hasieran Parisen (Frantzia) lorturiko bosgarren postuari esker, eta joan zen asteburuan Birminghamen (Ingalaterra) lorturiko bigarrenari esker.

Iaz brontzezko domina irabazi zuen Europako Kopako proba batean, Malagan (Espainia). Birminghamen beste koska bat igo eta zilarra bereganatu zuen. "Dominen borrokan ibiltzea nuen helburu, baina ez finalera heltzea. Nire mailarik onena ematea lortu nuen eta pozarren nago", adierazi du.



Deniba Konare zilarrezko dominagaz.

Elorriok Bizkaiko herri artekoa irabazi du paleta goman, eta garaipenez beteriko urtea borobildu du

PALETA GOMA • J.D.

Larrabetzu mendean hartuta, Elorriok paleta gomako Bizkaiko herri arteko txapelketa irabazi zuen joan zen asteburuan, Armintzan. Finaleko partidu biak irabazi zituzten, Julene Inunciagak eta Jaione Escribanok emakumeetan, eta Xabi Bikuñak eta Iker Agirresarobek gizonetan. Denak Elo-

rrioko Hori hori klubean dabilta. Aurten txapel gehiago ere irabazi dituzte. Esaterako, Elene García, Haizea Irañeta eta Julene Inunciaga Euskal Herriko txapeldun geratu dira kadeteetan. Gizonetan, Ganix Belamendiak eta Xabi Bikuñak Bizkaiko klubaren arteko hirugarren mailako txapelketa irabazi dute, besteak beste.



Elorrioko pilotariak Bizkaiko herri arteko txapelketako txapelak jantzita.



Rukula + Chuleria Joder!

MUSIKA BERRIZ :: Ekainak 30

Rukula taldeak 'Traganarru' azken diskoa aurkeztuko du Berrizen

Traganarru, maiatzean kalera-turiko diskoa aurkezteko biran murgilduta dago Rukula talde gipuzkoarra, eta gaur Berrizko txosnagunean dute ipinita hitzordua. Estilo desberdinez osaturiko "entsalada dantzagarria" osatu dute, taldekideen berbetan. Bada, horretaz gozatzeko aukera izango dute taldearen jarraitzaileek Berrizen. Chuleria, JODER! bizkaitarrek ere joko dute 22:00etan hasiko den kontzertuan.

Usurbilen jaio zen Rukula, 2015ean, eta erritmo aldaketek jositako doinu dantzagarriak dakartza. Funk, rock, stoner eta metal doinuak nahasten dituzte, batere konplexurik barik, eta energia handiko zuzeneko kontzertuetan indarra eta dantza egiteko gogoia transmititzen dituzte. Aurretik beste lan bi kaleratu dituzte: *Rukula* eta *Hazi Beltzak*. Oihan Agirretzek, Martxel Arkarazok, Aitor Pagolak eta Jon Agirianok osatzen dute taldea.

Ekainaren 30ean

ABADIÑO kontzertua

Ekhira taldea: Onintza Azkarate (biolina), Aritz Azurmendi (ouda, baglama), Argibel Euba (perkusioa) eta Andromachi Koufogiorgou (ahotsa eta perkusioa), 20:00etan, Mendiolako Errekatxo auzoan.

ABADIÑO sanmartinak

Donien Atxa jasotzea, 20:00etan, Gaztelua auzoan.
Afari autogestionatua; Jai Batzordeak mahaiak eta aulkiak ipiniko ditu.

ATXONDO sanpedroak

Panpotx (umeentzako makillajea, ile-apainketa, jolasak), 17:30ean, plazan.
Herri afaria, 20:00etan, plazan (bakailao txapelketa eta patata tortilla txapelketa).
Laiotz taldea, 22:30ean.

BERRIZ sanpedroak

Tribiala, 12:00etan, udaletxe lorategian. 12 urtetik gorakoentzat.
Umeentzako parkea: jumping, puzgarriak... eskolako patioan (12:30-14:00/16:00-19:00).

Nesken XII. mutilen XIII. eta mistoen IV. Frontenis

Txapelketako finalak, 16:30ean, Olakueta frontoian.
Berrizko Udalaren lau eta erdiko txapelketako finala, 19:00etan, Olakueta frontoian
Luis Fercán, 20:00etan, Elizondo plazan. Ondoren,
DJ Roka eta DJ Kuku. Rukula + Chuleria, joder! taldeen kontzertua, 22:00etan, txosnagunean. Ondoren, **bingoa**. Txosna batzordeak antolatuta.

DURANGO sanpedroak

Txistulariak, 09:00etan, Tabira auzoan.

Bakarrizketa saioa: Gorka

Madrazo, Erika Olaizola, Kepa Errasti eta Maite Lopez, 19:00etan, Ibaizabal ikastolako lorategian.
Tortilla jana, 20:00etan, Tabiran.
DJ Maratoi herrikoia, 21:00etan.

Uztailaren 1ean

ABADIÑO sanmartinak

Patagonia Hatha Yogaren eskutik yoga saioa, 10:15ean, Gaztelua auzoan.

Abadiño emakume artisau eta sortzaileen azoka

11:00etan.
Umeentzako tailerrak, 11:00etan.
Abadiño sokatira taldearen erakustaldia, 12:00etan.
Trikitilariak giroa alaitzeko, 13:00etatik 18:00etara.
Auzo bazkaria, 14:00etan (izena eman behar da)
Bazkalostean gazta baten zozketa egingo dute. Tortilla txapelketa, 20:00etan.
Erromeria: Gauargi, 22:00etan.

ABADIÑO erromeria

Txupinazoa, 12:15ean, Astola auzoan.
Pregoa, 12:20an.
Rocioko meza (De Norte a Sur abesbatza), 12:30ean.
Ohorezko rebujittoa, 13:30ean.
Kontzertua: Azahar, 13:45ean.
Gazpatxo txapelketa, 14:30ean.
Herri bazkaria, 15:00etan.
Gaztelu puzgarriak, 16:00etan.
Postre dastatzea, 17:00etan.
Erromeroen hautaketa eta sari banaketa, 17:30ean.
De Norte a Sur dantza taldeen erakustaldia,

18:00etan.

Kapela txapelketa

19:00etan.
Palomita banaketa, 19:30ean.
Disko-festa: Onda Futura, 20:00etan.
De Norte a Sur dantza taldearen 'Deporte con Arte' umorezko saioagaz hasiko da jaiak. Txokolatada, 23:00etan.
Ekitaldi sorpresa, gauerdian.

ATXONDO sanpedroak

Zintzilik emozioen laborategia (tirolinak, sareak, eskalada...), 11:30etik 14:30era eta 16:30etik 19:30era, plazan.
Kuadrillen paella eta igel txapelketa, eguerdian.
Mus txapelketa, 17:00etan.
Kalejira: Distopia elektrotxaranga, 18:30ean.
Añube eta Iskanbila, 23:00etan.

BERRIZ sanpedroak

Kuadrillen bazkarirako lekuen zozketa, 10:00etan, Elizondo plazan.
'Txaplin' Tutik Clowns (Gari, Montxo eta Joselontxo), 11:30ean, eskolako patioan.
Herri kirolak, 12:45ean.
Gizonezkoen Bizkaiko Trontza promozioko txapelketa. Emakumezkoen Bizkaiko

Trontza promozioko txapelketa. Bizkaia Open

Jardunaldia Iparraldeko Jokoak. Paella lehiaketa, 14:00etan, Udaletxe lorategian.
Herri bazkari autogestionatua, 15:00etan, txosna batzordeak antolatuta.
Koadrilen mozorren jaitsiera, 18:00etan, txosna batzordeak antolatuta.
Oihan Vegagaz diskofesta, 18:30ean, Elizondo plazan.
Igel txapelketa herrikoia, 19:00etan (Izen-ematea 18:30 - 19:00).
Oihan Vegagaz erromeria, 22:00etan, Elizondo plazan. Ondoren, **DJ Blesive. Kontzertua: Feline + Flash**, 22:00etan, txosnagunean.
Bingoa, atsedendian.
DJ Pary & Tiza, txosnagunean.

DURANGO ikastaroa

Suk Aldatu: sukaldaritza begetariano eta beganoari buruzko ikastaroa, 13tik 16 urtera bitarteko umeentzat, 11:00etan, Merkatu plazan.

DURANGO sanpedroak

Spining, 09:00etan, Tabira auzoan.
Marmitako txapelketa, 09:30ean.
Gazteentzako jolasak, 11:30ean.

Sari banaketa, 15:30ean.
Mus, partxis eta igel txapelketa, 17:00etan.
Sugarri fanfarrea, 17:30ean.
Taloak, 20:00etan.
Erromeria: Altxa Porru, 21:00etan.
DJ Kuku, 00:30ean.

DURANGO omenaldia
Juanjo Morenori omenaldia, 11:30ean,
Landako kiroldagian.

ELORRIO Berrio-Otxoa
Markeliñe antzerki taldea,
22:30ean, plazan.

IURRETA sanmartinak
Donien Atxa jasotzea,
18:00etan, Amatzan. Auzoko
soinulariek alaituta.
Dantzarien azken entsegua, 18:30ean.
Tortilla txapelketako aurkezpena, 20:30ean.
Afaria, 21:00etan,
txapelketako tortillekin.

Uztailaren 2an

ATXONDO sanpedroak
Artisau eta nekazari azoka, 11:00etatik
14:00etara, plazan.
Ume eta nagusientzako kontzertua: Naita
Produkzioak, 19:00etan.
Txopoa bota eta txokolatada.

BERRIZ sanpedroak
Umeentzako betiko jolasak, 11:30ean, eskolako patioan.
Meza nagusia, 12:30ean.
Ondoren, **Dantzari Dantza**.
Jubilatuentzat bazkaria, 14:00etan, kiroldagian.
Musika, bazkalostean.
XI Jose Ramon Korpion Memoriala Bakailaoa Pil-pilean lehiaketa, 14:00etan, udaletxeko lorategian.
'Mesede bat egitearren' (Trapu Zaharra), 18:00etan.
Bertso saioa (Berrizko Bertso Eskola), 18:30ean.
Dantzari Dantza entsegua, 20:00etan, Elizondo plazan.
Tortilla lehiaketa, 20:30ean, udaletxeko lorategian.

Kontzertua: Janus Lester, 21:30ean, eskolako patioan.
Su artifizialak, 23:00etan,
Berrizburun.
Twister erraldoia eta agur argazkiak, gauerdian, txosna batzordeak antolatuta.

DURANGO sanpedroak
Goitibeherak, 11:00etan,
Tabira auzoan.
Taloak, 11:00etan.
Herri kirolak: Karmele Gisasola 'Zelai III.a', Ioritz Gisasola 'Zelai IV.a', Jon Gisasola 'Zelai V.a' eta Uxue Ansorregi, 12:30ean.
'¿Que buen día!' klown ikuskizuna (Maite Guevara), 19:00etan, Tabira parkean.

DURANGO musika
Durangoko Orfeoiaren udako kontzertua.
Zuzendaria: Fernando Urain Oñederra.
Musikariak: Maite Molina (pianoa) eta Andrés Tejo (gitarra), 19:30ean,
Plateruena kultur aterpean.

ELORRIO Berrio-Otxoa XVII. Azoka Ekologikoa,
goiz osoan, plazan.
Trikitilari Gazteen VII. Txapelketa, 19:00etan,
plazan.

IURRETA sanmartinak
Trikitilariekin kalejira,
10:30ean, Amatzan auzoan.
Auzoko dantzarien saioa,
12:30ean. Ondoren, luntxa.
Bazkari herrikoia,
15:00etan.
Karta-joko txapelketa eta umeentzako jolasak.

Uztailaren 2ra bitartean

DURANGO erakusketa
'La Divina Commedia' (Komisarioa: Massimiliano Tonelli), Arte eta Historia Museoan.

Uztailaren 3an

ZORNOTZA jaia
Tour Eguna
Umeentzako ekintzak,

11:30etik 13:30era, Zelaieta parkean.

Triki Piu Pand trikitilariak, 11:30ean, Gernika plazan eta Zezilia Gallartzagaitan.
Amorebieta-Etxano Baiona etapa ikusi ahal izateko pantaila eta txosna, 12:30ean, Zelaieta parkean.
Zornotza Kantuz egitasmoa Elaia, Coral Zornotza, Andra Mari, Xuxurlariak eta Abeskimu herriko koruekin, 13:30ean,
Euskal Herria plazan, Luis Urrengoetxean eta Harrison tabernan.

Kaleko musika Urban Cross Music taldeagaz, 16:00etan, Zezilia Gallartzagaitan, Sabino Aranan eta Urbano Larruzean.
Umeentzako ekintzak, 17:00etan, Zelaieta parkean.
Zornotzako Musika Bandaren emanaldia, 17:00etan, Zezilia Gallartzagaitan, Sabino Aranan eta Urbano Larruzean.
Udazken txistu taldea eta Udabarri dantza taldea, 17:30ean, Andra Mari plazan, Gernika plazan eta San Juan kalean.
Zea Mays eta Bulego, 18:30ean, Zubiondo plazan.

Uztailaren 4an

ABADIÑO sanmartinak
Meza, 11:30ean, Gaztelua auzoan.
Luntxa, 12:00etan.
ELORRIO Berrio-Otxoa
Txistulariekin kalejira, 10:00etan, herrigunean.
Meza Nagusia basilikako koruaren emanaldiaz, 12:00etan, Sortzez Garbiaren basilikan.
Hamaiketakoa, 13:00etan, Berrio-Otxoa kalean.
Berrio-Otxoa abesbatzaren emanaldia, 20:00etan, Santa Anako kaperan.

IURRETA sanmartinak
Trikitilarien kalejira, 10:30ean, Amatzan auzoan.
Meza nagusia. 12:00etan.
Ondoren, **luntxa**.

Uztailaren 6an

DURANGO irakurraldia
Irakurraldi feminista, 19:00etan.

DURANGO batzarra
Al-Anon alkoholikoen senitarteko eta lagun taldea. Eguenetan,
18:00etatik 20:00etara,
Muruetatorre 11n (Landako kiroldagian sotoan).
611055805.

ELORRIO musika
Gaugiro: Heitxi, 21:00etan,
Portalekuan.

Uztailaren 7an

ABADIÑO sanmartinak
Donien Atxa botatzea, 20:00etan, Gaztelua auzoan.
Ondoren, berakatz zopa.

ABADIÑO sankristobalak
Donien Atxaren bila, 18:00etan, Mendiolako Errekaxo elkartetik.
Berakatz zopa, 21:00etan,
bertaratzen denarentzat.
Kontzertua: Lukiek + Liher, 22:30ean, Mendiolan.

DURANGO ikuskizuna
'¿Qué sueñan los príncipes?' (Tabula Rasa eta Mariano Estudillo), 20:00etan, Benita Uribarrena parkean.

ELORRIO ikuskizuna
'Circle of fire' (Debaru Beltzak), 22:30ean, plazan.

GARAI bakarrizketa
Markel Sánchez 'Torrai' eta Joana Ocaña 'Nona', 19:00etan, Elizabarrin.
Trumoitte kultur elkarteak antolatuta.

ZORNOTZA kirola
Boxeo Eguna, 20:00etan,
Ixebekoa kiroldagian. Ate irekiera, 19:00etan.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• Indiana Jones y el dial del destino

barikua 30: 18:00 / 21:00
zapata 1: 17:30 / 20:30
domeka 2: 17:00 / 20:00
astelehena 3: 17:30 / 19:30
martitena 4: 17:30 / 19:30
eguztana 5: 18:30

• Houria (Libertad)

barikua 30: 18:30 / 21:00
zapata 1: 19:15 / 21:30
domeka 2: 18:30 / 20:30
astelehena 3: 18:00 / 20:15
martitena 4: 18:00 / 20:15
eguztana 5: 19:00

• Ruby, aventuras de una kraken adolescente

barikua 30: 18:30 / 21:00
zapata 1: 17:00 / 19:15 / 21:30
domeka 2: 16:30 / 18:30 / 20:30
astelehena 3: 17:30 / 20:15
martitena 4: 17:30 / 20:15
eguztana 5: 19:00

::Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• Una vida no tan simple

barikua 30: 20:00
zapata 1: 20:00
domeka 2: 20:00
astelehena 3: 20:15

• Spider-man: cruzando el multiverso

zapata 1: 17:00
domeka 2: 17:00



Zugaza zinemaren, ekainaren 30etik
uztailaren 5era bitartean.

Botikak

BARIKUA, 30 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 1 · 09:00-09:00

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-13:30

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 2 · 09:00-09:00

ETXEARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 3 · 09:00-09:00

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 4 · 09:00-09:00

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 5 09:00-09:00

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 6 · 09:00-09:00

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak
guztio!


GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozategia
gozatugozotegia



Zorionak, **Lide!** Egun oso ona pasau. Mosu handi bat.



Zorionak, **Josu eta Unai!** Jaixek gozatu ta ondo pasau! Aupa Pinupe!



Zorionak, **Peio!** Uztailaren 4an 10 urte egingo dituzu. Oso ondo pasa, laztana. Mosu haundi bat etxeko danon partez, batez be Naian partez.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 13° / 22° ☁

ASTELEHENA ↓ 15° / 24° ☁

EGUAZTENA ↓ 15° / 22° ☁

DOMEKA ↓ 16° / 22° ☁

MARTITZENA ↓ 15° / 23° ☁

EGUENA ↓ 16° / 25° ☁

ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



"Ardi nano biri txapa ipintzeko lepoko bi egin genituen behin"

Ane Solanak etxeko animalientzako osagarriak egiten ditu, eskuz, Lioka izenpean. Lepokoak eta paseoan eramateko sokak saltzen ditu, eta arnesak egitea ere badu buruan



Ane Solana Aresti

Lioka

DURANGO | 1996

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Liokak martxoan ekin zion bere bideari. Ane Solana proiektuaren ageriko aurpegia da, eta ahorik ahokoa-ri eskerrak leku bat hartzen hasi dira etxeko animalientzako merkaturan. Durangaldeko eta batez ere Bizkai-ko hainbat azokatan parte hartu dute eta Solanak dio oso harrera ona izan dutela. Betaurrekoak edo mugikorrek eramateko osagarriak eta gerrikoak egiteko enkarguak ere egin dizkiete (lioka_shop).

Zelan jaio zen Lioka?

Aurretik, makramea erabiliz saskiak egin ditut furgonetarako. Pan-

demia sasoiaren murgildu nintzen horretan. Bada, lagun batzuekin elkartu ginen batean, makramea edo antzerako teknika bat erabilia euren txakurrentzat lepokoak egingo ote nizkien galdetu zidaten. Esan eta egin. Interneten arakatzeko hasi nintzen eta Alemanian oso ohikoa dela ikusi nuen. Zelan egiten zuten ikusi ondoren, ni neu hasi nintzen. Bikotekideak eta biok hasitako proiektua da.

Harrera ona izan duzue.

Bai. Lagunen enkarguekin hasi ginen. Baina geroago eta gehiago egiten hasi ginen, eta Eixu elkarteak Elorrión antolaturiko azokan parte

hartzeko aukera sortu zen. Jendeak gure produktuak gustuko zituela ikusita, aurrera jarraitu genuen.

Orain arte lez jarraitzea da helburua, hazten joatea eta eboluzionatzea

Zein produktu eskaintzen dituzue?

Batez ere, txakurrentzako eta katuentzako lepokoak eta paseoan eramateko sokak egiten

ditugu. Lepokoak paraxutistek erabilitako paracord sokekin egiten ditugu, korapiloen hainbat teknika erabilia. Oso material gogorra da, 200 kilotik gora eusten ditu eta kolore politak dituzte. Merkatu berri bat sortu da hor, eta paracord soka koloretsuagoak egiten dituzte. European oso zabal-duta dago: Alemanian, Holandan, Kroazian, Belgikan... Handik hartu nuen ideia. Kolorea, diseinua eta materialaren gogortasuna gustatzen zaizkio jendeari. Sokak eskalatzaileek dituztenen antzerakoak dira, diseinu politagoagaz.

Hutsune bat bete duzue?

Nahiko eskaintza berria da orain-koz. Azoketan esan digute ez dutela gureen moduko lepokorik ikusi. Eta produktu desberdin bat eskaintzen dugulako deitu digute azoketan parte hartzeko. Denda batean

Produktu desberdin bat eskaintzen dugulako deitu digute azoketan parte hartzeko

ez dago aukerarik norberak gura duen moduko lepokoa egiteko, gura dugun koloreekin eta material honegatz. Hori da gure bereizgarritasuna.

Txakurrentzako eta katuentzako osagarrietara mugatzen zarete?

Bueno, ardi nano biri txapa ipintzeko lepoko bi egin genituen behin. Ahuntzek ere eramaten dituzte. Txakurrentzako lepokoak egiten ditugu gehien. Baina katuentzakoak ere bai, nahiz eta ohikoena ez izan. Ez dugu inolako animaliarik diskriminatzen (barrez).

Zein izan da enkargurik bitxiena?

Parte hartu genuen lehenengo azokan, metro bi soka erosi zigun emakume batek, papagai bati ipintzeko.

Noraino helduko da Lioka?

Ez dakit, orain arte lez jarraitzea da helburua, hazten joatea eta eboluzionatzea. Ez da gure lanbidea, ez dugu horrela ikusten, baina hemendik zerbaitekin irteten badu, ondo. Ez gaude ezertara itxita.

Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Erakusleihoa

Frantziako Tourra Durangaldean sartuko da egunotan, eta erakusleihoko bikoitza izango dela diote: alde batetik, eskualdetik pasatuko denez etxeko bentanatik ikusi ahal izango ditugu txirrindulari famatuak gure herrietako biribilgune, pibote eta badenak saihesten; bestetik, Durangaldea eta Euskal Herria telebistan agertuko dira, erakusleihoko ipiniko ditugu, nor egingo.

Baina Tourra joango da, eta erakusleihoko argiak amataztean gure isla ikusiko dugu kristalean: Tourra diru publiko finantzatu eta alfombra gorria ipini dion herria gara, baina bertako txirrindulari lasterketa geroz eta gutxiago dituen, baimen eta baliabide ekonomiko faltagatik. Bertako artista eta kulturagileak hauspotu beharrean Guggenheim museo berri bat eraiki gura duen herria. Musika zirkuitu propioak eratu eta elikatu beharrean MTV Music, Last Tour, BBK Live eta antzeko enpresa eta makro-jaialdiei dena ahora ematen dien herria. Enpresa handiek kanpotik dakartena norberarena baino hobea dela uste duen herria, turismoa erakartzeko modernoa izan gura duena patetikoki, euskara eta euskal kultura gauza exotiko lez saltzen dituen, marketineko berba jokoetarako herria, ongi eTourri.

Bazter guztiak ikurrinaz bete ditugu, eta agian horrek ez digu gure herria ondo ikusten uzten. Geure buruari begiratu eta zer izan gura dugun pentsatzea tokatzen zaigu, zein herri eredu sustatu gura dugun, ea kapitalaren interesen esanetara jarraituko dugun ala guretik ekingo diogun. Ea inor gure gaitetik pasatzen utziko dugun ala guk eragingo diegun pedalei.



SAN ROKE BARRIA DURANGO

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango



Ludoteka

Gimnasioa

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com



KALERATZE prezio bereziak